



elkarriren plan estrategikoa



[www.elkarri.org](http://www.elkarri.org)

gipuzkoa  
madrid etorbidea, 5  
20011 donostia  
tf: 943 45 93 75 fax: 943 45 07 58  
e-mail: gipuzkoa@elkarri.org

navarroa  
tudela kalea, 18 - 2.G  
31003 iruña  
tf: 948 24 84 00 fax: 948 24 92 88  
e-mail: navarroa@elkarri.org

bizkaia  
arenal 5. SVRNE 209. bulegoa  
48005 bilbo  
tf: 94 479 03 16 fax: 94 415 80 03  
e-mail: bizkaia@elkarri.org

araba  
estibalitz etorbidea, 2 - 1.a / 5. bulegoa  
01003 gasteiz  
tf: 945 25 61 76 fax: 945 28 00 97  
e-mail: araba@elkarri.org

# aurkibidea

aurkezpena

---

1 Eraiki Proiektuaren gestio txostena

---

2 egoeraren diagnostikoa

---

3 Elkarriren misioa 2000. urtetik aurrera

---

4 esku-hartze proiektua (2000ko ekainetik aurrera)

---

5 ponentzia eta erabaki osagarriak





Bi urtetik behin gutxi gora-behera, elkarrik bi urte horietan egindako lana errebisatzeaz gain, ondorengo planifikatu egiten du. Gizarte mugimendu honek 1998ko ekainean onartutako Eraiki Proiektua, biurterako esku-hartze plana, indarrean egon da 2000ko ekainerarte.

Arrazoi honengatik, apiriletik elkarri osatzen dugun kide guztiak VI. Batzar Nagusiaren eginkizunetan murgilduta egon gara. Batzar prozesua hiru hilabetez luzatu da. Azkenik, 2000ko ekainaren 17an «Zubigintzan. Alderdi guztien arteko elkarrizketa 2.000 ordu bultzatu» Plan Estrategikoa onartu zen Bilbon osoko batzar batean. Dokumentu hau indarrean egongo da, hasiera batean, 2001eko bukaerarte.

Argitalpen honetan batzar prozesuan onartutako ponentziak eta erabakiak jasotzen dira. Behin-betiko dokumentuak bost ponentzia dauzka: (1) Eraiki Proiektuaren gestio txostena; (2) Egoeraren diagnostikoa; (3) Elkarriren misioa 2000. urtetik aurrera; (4) Esku-hartze proiektua (2000ko ekainetik aurrera); (5) Ponentzia eta erabaki osagarriak.

# aurkezpena

Eztabaidetan aurkeztutako 23 zuzenketetik 9 onartu ziren. Egun horretan dokumentua berretsita geratu zen ordezkarien 175 baiezko boto eta 2 abstentziorekin. Aurkako botorik ez zen egon.

Testu honetako edukia bi ideia nagusietan laburtu behar izango balitz, hurrengo azpimarratuko genuke: (1) Gero eta zabalagoa den espazio sozial eta politikoa, bi aldarrikapenek osatzen eta biltzen dute: indarkeriarik eza eta bazterketarik gabeko elkarrizketa. Espazio hau egungo egoera korapilotsua eta bake-prozesua aurrera ateratzeko aukera eremu nagusia da. (2) elkarriren lehentasunezko funtzioa hemendik aurrera zubiak eraikitzea eta alderdi guztien arteko elkarrizketak bultzatzea, laguntzea edo sustatzea da.


Bake-prozesua ibilbide kontraesankor eta akastuna da. Dokumentu hau elkarriren lanerako gidoi orokorra da. Hobetu daitekeenez, ekarpenei, iradokizunei edo kritikei irekia dago. Bidea ibilean egiten da, are gehiago, gure herriak bizi duen bezalako prozesu batean, non ibilbide hori nolakoa izango den alde aurretik jakitea ezinezkoa den. Arrazoi hauengatik elkarrik dokumentu hau zure eskura jartzen du, gogoetak eskaintzeko asmoz, eta jakina, entzuteko ere bai.



# 1 Eraiki

zubigintzan 2.000 ordu

6 elkarri



1998ko martxoaren 28an elkarrik gizarte mugimendu honen jarraipenaren inguruan gogoetarako eta eztabaidarako ez ohiko batzar prozesu bati amaiera eman zion. Prozesu horretan elkarrik jarraitu «behar, ahal eta nahi» zuela erabaki zuen. Erabaki horren ondorio bi urteko esku-hartze proposamen bat idaztea eta eztabaidatzeari hasiera ematea izan zen.

Gizarte mugimendu honen herrialde batzarrek behin-behineko onarpena eman zioten ekainaren urte berean Eraiki Proiektuari (elkarriren bi urteko esku-hartze proposamenari). Urte bereko irailaren 19an Donostian eginiko Topaketa Nazionalan eta parte-hartze prozesu zabal baten ondoren, behin-betiko onarpena eman zitzaion proiektuari.

Dokumentu hori 2000ko ekainean indargabetzen zen. Beraz, epe berri baterako proiektu estrategiko berri bat lantzea, eztabaidatzea eta onartzea dagokigu. Jarduera ardatz berriak azaldu eta proposatu aurretik, duela bi urte egitea aurreikusi genuenaren balantzea eta ebaluazioa egin behar dugu.

# Proiektuaren gestio txostena

Logikoki, bi urterako aurreikuspenak jasotzen dituen dokumentu batek zehazpen maila mugatua du. Gertaeren kurtsoaren arabera zehazten joan beharko diren jarduerarako ildo nagusiak finkatzen ditu. Eraiki Proiektuan jasotzen ziren orientabide eta aurreikuspen orokorrak zehazteko elkarrik erabili duen metodoa PIG-EPOak izan dira (Esku-hartze Programa Orokorrak). Eraiki Proiektuaren eduki teoriko eta orokorrak praktikara itzuli eta zehazten zituzten seihilabetetarako lau dokumentu izan ziren.

Ondorioz, dokumentu honetan garatu nahi dugun balantzerako Eraiki Proiektuaren zein seihilabetero egindako Esku-hartze Programa Orokorren edukiak (PIG-EPOak) hartu beharko ditugu kontuan. Balantze honetan honako atalak ebaluatuko ditugu: (1) duela bi urte egin genuen diagnostikoa; (2) proposamen estrategikoa; (3) une horretan lehentasuna eman genien hamar esku-hartze programak; (4) aurreikusi ez genituen jarduerak eta seihilabetero programen bitartez txertatuak; eta (5) azkenik bosgarren atal batean balantzearen ondorioak aterako ditugu.

Bestetik, azpimarratu behar da Eraiki Proiektuaren balantzea ezin dela tokatu zaion koiunturatik kanpo egin. Proiektu hau, hamar urte ondoren, oraindik Ajuria Eneko Itunaren izpiritua indarrean jarraitzen zuenean egin eta onartu zen. Handik denbora gutxira eta hamalau hilabetez, Eraiki Proiektua ETaren su-etenarekin eta Lizarrako Akordioaren izpiritua deitu genezakenarekin bizi izan da. Orain, Eraiki Proiektuak azken asteak su-etenaren ondorengo giro konplikatuan beteko ditu. Hau guztia analisirako objektua izango da ponentzia hauetan.

## 1 Eraiki Proiektuaren diagnostikoaren ebaluazioa

«Gaizki planteatutako arazo batek konponbidearen diseinu desegoki batera garamatza». Kasu honetan gaizki planteatutako diagnostiko batek jarduera proiektu diseinu desegoki batera garamatzala esan genezake. Eraiki Proiektuak, orokorrean hartuta, izan ditzake ebaluazio eztabaidagarria eta bete diren ala ez interpretazio desberdinak izan ditzaketan atalak, baina nonbait bete betean asmatu bazuen, lehen orrietan, egoeraren diagnostikoa azaltzerakoan izan zen. 1998ko udaberrian elkarririk hurrengoa idatzi zuen:

### Diagnostikoaren laburpenaren zati nagusia

«(...) Fase berri baten hastapenetan gaude: desberdinen arteko lankidetza sustatzen hasi da eta gatazkarako konponbide zehatzak eztabaidatzen. Bi faktore horiek argi erakusten dute gatazkak bilakaera positiboa izan duela eta bake-prozesurako bidera hurbiltzen hasi gara. Datozen bi urteotan Euskal Herrian esparru horretan sortuko dira, hain zuzen, gatazka konpontzeko aukerak eta bake bideak. Eta elkarriren analisia, esku-hartzeak eta estrategia ere hortik abiatuko dira. (...)»

Batek baino gehiagok 1998ko ekainan diagnostiko hau eguzkiari topa zela pentsatu bazuen ere, egoeraren analisi honek elkarriren proiektua gako eraikitzaileetan, zetozen garaietarako guztiz egokiak, kokatzea ahalbidetu zuen. Hau idatzi eta handik lau edo bost hilabetera, Lizarrako Adierazpena eta ETaren su-etena gertatu ziren. Bi hamarkadaz baino gehiagoko eta parametro berdin eta mugiezinen gatazka eta indarkeria egoera blokeatuak, nabarmenki aldatu zen. Bake-prozesu batera hurbiltzen ari ginela adierazten zuen aurrekaririk ez zuen orratz aldaketa bat eman zen.

Ondorio bezala esan genezake Eraiki Proiektuan bete betean asmatu genuela egoeraren diagnostikoarekin.

## 2 proposamen estrategikoaren ebaluazioa

Bi urte hauetan zehar garatu dugun proposamen estrategikoa bi aldaietan arabera ebaluatu behar da, Eraiki Proiektuko edukiak eta Esku-hartze Programa Orokorretan (EPOetan) seihilabetero gehitutako edukiak.

### 2.1. Proposamen estrategikoa Eraiki Proiektuan

Eraiki Proiektuko proposamen estrategikoa lau atalez osatzen zen: lehena helburuetan oinarritua eta beste hirurak estrategia zehaztean. Banan bana ebaluatuko ditugu.

#### Helburuak

- Euskal gatazkaren eboluzioa, trantsizioa eta hurbilketa modu eraikitzailean bultzatzea, gaur egun bizi duen heldutasun egoeratik bake-prozesuraino.
- Euskal gatazkaren bake-prozesua sortzen (oinarritzen, irekitzen eta aktibatzen) lagundu.»

Helburuen definizioaren egokitasuna bi erreferentziren arabera ebaluatu dezakegu: (1) egoera politiko orokorrarekin bat datozen eta (2) garatu den lan errealekin bat datozen.

Lehenari dagokionez, helburu hauen definizioa eszenategi politikoak sortu dituen eskaeretara bete-betean erantzun diola esan genezake: bilakaera positiboaren eta bake-prozesura hurbiltzearen beharra. Ebaluaziorako bigarren erreferenteari dagokionez, elkarrik bi urte hauetan egin duen lanaren lotura Eraiki Proiektuak finkatu zituen helburuekin bat datorrela ondorioztatatu behar dugu.

### **Estrategia**

Eraiki Proiektuaren dokumentuak estrategia hiru ataletan diseinatu zuen. Hauen eduki nagusiak hurrengoak dira:

#### «(...)Orientazio orokorra

Esparru guztietan, eraikuntzaren gako politikoan oinarritzen diren ideia eta ekintza guztiak garatu, bultzatu, proposatu, defendatu eta lagundu.

#### Oinarrizko estrategia ildoak

Irizpide orokor hori zehaztu egin daiteke, batez ere lau printzipio estrategiko proposatuz eta indarrean jarritz:

- Erraztu: komunikazioa eta distentsioa eskaini eta eskatu.
- Elkarlanean aritu: bereizten gaituenaren gainetik biltzen gaituena bultzatu, guztion arteko konponbideak bilatzeko.
- Ez baztertu: soziologikoki, geografikoki eta politikoki alde guztiak bilduko dituzten prozesuak diseinatu.
- Demokrazian sakondu: arrazonamendu, printzipio, prozedura eta helburu politikoak ezarri.

#### irizpide osagarriak

- (1) Zorroztasuna. elkarrik zorroztasunez eta diskrezioz eramango du aurrera bere lan dinamizatzailea, jarrera zorrotz eta aktiboz, baina heldutasun kolektiborako prozesuak behar dituen erritmoak kontuan hartuz.
- (2) Indarra. elkarrik, proiektua aurrera eramateko behar-beharrezkoa den gizartearen laguntza bilatuko du, bai beretzat eta baita proiektuarentzat ere.
- (3) Irudi berritzailea. Eraiki Proiektuarekin batera, gizarte mugimendu honen irudi korporatiboaren berriztaketa ere gertatuko da.
- (4) Esku-hartze esparru laukoitza. Eraiki Proiektuaren filosofia lau esparru nagusitan zabalduko du elkarrik: a) esku-hartzea nazioarte mailan, b) parte-hartze soziopolitiko herri mailan, c) esku-hartzea nazional mailan eta d) estatuetak mailan esku-hartzea. Lana hamar parte-hartze programen bitartez egituratuko da. (...)

Orientazio orokorrari eta ildo estrategiko nagusiei dagokienez, balorazio bera egin daiteke. Baliogarriak eta aproposak izan dira epe honetan gizarte mugimendu honen jarduera eta ekarpenak mugatzeko.

Bigarren irizpidearen «elkarri eta bere proiektua gizartean indartu» ez da behar bezala bete. Tailer Lokal, diru-emailer eta laguntzaileen sarea modu aktiboan mantendu arren, gizarte mugimendu honek esfortzu handiagoak eman ditu kanporako jardueran sendotze edo hedatzen baino.

Izaera osagarria duten irizpideei dagokienez, balorazioa malkarra da. elkarrik ondo bete ditu hauetako bitan finkatutako aurreikuspenak: zorrotasuna eta irudi berritzailea. Gizarte mugimendu honek beharrezkoa izan denean diskrezioz eta zorrotasunaz eta pertseberantzia aritu da. Komunikaziorako euskarrietan diseinua eta irudia berritzearen aurreikuspena bete du.

Esku-hartze lau esparruei dagokienez, elkarrik hauetako bitan aurreikusitakoa bete du, herri eta nazional mailako esku-hartzea. Bitarteko gutxiago bideratu ditu estatuetako eta nazioarteko esparruetara.

## 2.2. Proposamen estrategikora gehitutako edukiak

Eraiki Proiektuak urte bat bete zuenean, prozesuak oso bilakaera positiboa bizi izan zuen. Oztupo guztien gaintik, 1999ko udan su-etenak eta Lizarrako Adierazpenak hamar hilabete bete zituzten. Garai horretan hirugarren seihilabeteko Esku-hartze Programa Orokorra (EPO 3) idazteko ordua zen. Prozesuaren garapen ona ikusirik, elkarrik Eraiki Proiektuaren proposamen estrategikora eduki berriak gehitu zizkion. Hauek handinahikoak baziren ere, ikuspuntu dinamiko batetik beharrezkoak ziren. Hiru ataletan azter daitezke:

### Helburu orokor berri bat txertatzea

«1999-2000 kurtsuan inor baztertuko ez duen, tradizio guztiak batuko dituen eta adostutako lan-agenda bat izango duen alderdien mahai bat (edo batzuk) eratzea.»

Helburu hau ez da bete, gainditu gabeko irakasgaia izaten darrai gizarte mugimendu honentzat. Nafarroako Parlamentuan eraturako Elkarbizitzarako Batzordea da aurrerapauso nabarmenena, bere funtzionamendua eskasa izan arren. Dena dela, positiboa da helburu hau gehitu izana ekarpen interesgarriak ahalbidetu baititu: lehentasun sozial hau eztabaida politikoaren agendan sartzea ekarri du. Edozein kasutan, helburu hau ez da bete.

### Helburu zehatzen atal berri bat txertatzea

PIG-EPO 3an elkarrik egoeraren analisirako kontzeptu berri bat gehitu zuen: «bitarteko helmugak» edo prozesuaren aurrerapausoen adierazleak. Adierazle hauek gizarte mugimendu honek azpimarratu nahi dituen helburu zehatzak izatera pasako dira. Hurrengoak dira:

- «•Aldeanitzeko elkarriketak eta elkarriketari buruzko elkarriketak.
- Biktimen arazoaren inguruko konponbiderako printzipioen oinarritzko kontsentsua.
- Espetxe politikan funtsezko aldaketa.
- Nafarroak bake-pozesuan parte hartzen duela edo gerturatzeko delaren seinaleak.
- Gizartearen parte-hartzea areagotzea.»

Helburu zehatz hauek bete diren ala ez bi ikuspegietatik abiatuta jakin daiteke: elkarrik helburu bakoitzean eman duena eta lortutako emaitzak. Lehenengo kasuan, helburu hauek bete dira, baina bigarrenengoari dagokionez, ez dira bete. Azken urtean zehar elkarrik bere jardueraren zatirik handiena helburu hauetara zuzenduta egin du. Hala ere, 1999ko udaz geroztik,

prozesua su-etenaren hausturarekin amaituko den okertze fase batean sartuko da eta oso txikiak izango dira eremu hauetan azken 12 hilabetetan lortutako emaitzak.

### **Estrategia bereiztuaren atal berri bat txertatzea**

1999ko abuztutik aurrera PIG-EPO 3ak Eraiki Proiektuko proposamen estrategikoan txertatu eta sendotzen du epe honetarako elkarriren lana laburtu eta orientatzen duen atal berezi bat:

- «•ikuspegi sozialetik adiskidetzeko-kultura soziopolitiko bultzatu eta sustatu.
- ikuspegi politikitik, bere metodologian eta bere mahaiaren edo mahaien osaketan bilgune malgu bat bultzatu eta sustatu non EAEko eta Nafarroako tradizio politiko guztiak bilduko dituen.»

Ekarpen honetaz egin behar den balorazioa oso positiboa da. Edozein definizio estrategikoak izan behar duen baliogarrtasun orientatzailearen ikuspegitik, honek elkarriren lana laburtu eta ordenatu egiten du: gizartearen oinarrian elkarrizketaren eta adiskidetzekoaren kultura bultzatu eta politikan elkarrizketa eta topagune foro bat bultzatu. Hauek dira gizarte mugimendu baten ikuspegitik bake-prozesu batek dituen erronka nagusiak.

## **3 Eraiki Proiektuaren hamar esku-hartze programen ebaluazio orokorra**

Eraiki Proiektuak 1998-2000 eperako hamar esku-hartze programa jaso zituen. Hauetariko bi programen gauzatzea aukerakoa zen; hots, egoeraren baldintzen arabera gauzatuko ziren, beste guztiak lehentasunezko izaera zuten, gure nahia betetzea zen. Lehenik eta behin aukerako bi programak aztertuko ditugu eta ondoren beste zortziak.

### **3.1. Aukerako esku-hartze programak**

•Bake Konferentzia programa. Eraiki Proiektuaren edukietan elkarrik ez zuen baztertu nahi izan uneren batean Bake Konferentziaren bigarren topaketa bat antolatzeak izan zezakeen birtualtasuna. Ez zuen ezta bere baliogarrtasunetik edo egoera eta zirkunstantziak ziotenetik kanpo programatu nahi ere. Gizarte mugimendu honek egin duen gertakarien analisiak ez du une egokirik aurkitu aurreikuspen hau gauzatzeko eta ondorioz, ez da aurrera eraman.

•Izan programa. Antzeko zerbait gertatu da Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarriaren gaitasunaren proposamenarekin. Eraiki Proiektuan ekimen honen inguruan egiten den azalpenean argi uzten da publikoki aktibatutako ahal izateko heldutasun nahikoa lortu arte itxoin beharra dagoela. Zentzu honetan, gizarte mugimendu honen egutegian ez dira jarduerak aurreikusten. Edozein kasutan, elkarrik proposamen honen garapenean zuzenean ala zeharka parte hartu zuten pertsonalitate guztiei informazioa helarazi die aldika eta diskretuki aurreikusi zena betez. Dena dela, ez da aurreikusi ziren gestioen bolumen osoa garatu. Hala ere, Izan Proposamenaren garapen juridiko-politikoaren eskema aurreratua du, lehen izan 2 izendatu genuena.

### **3.2. Lehentasunezko esku-hartze programak**

•Sarrera programa. Programa hau trantsizio ekimen bat bezala diseinatu eta Eraiki Proiektuaren onespen prozesuarekin batera jorraztekoa zen. Helburua proiektu estrategiko honen proposamena gizartean kontrastatzea

zen hitzaldien bidez, oinarrizko dokumentua era pertsonalizatuan banatuz eta ekarpenak jasoaz. Programa aurreikusitako egutegiaren eta orientabideen arabera garatu zen, programatutakoa baino intentsitate zertxobait gutxiagorekin bete bazen ere.

Kanpaina honen garapena irudikatzen duten datuak hurrengoak dira:

·Triptiko informatiboak . . . . .	40.000 ale
·Eraiki Proiektuaren edukiekin banatutako dokumentuak . . . . .	8.000
·Ekarpenak egiteko kartazal inprimatuak . . . . .	15.000 ale
·Hitzaldiak . . . . .	78
·Kale-irteerak . . . . .	55
·Aldizkarirako harpidedun berriak . . . . .	21
·Diru-emaile berriak . . . . .	18
·Ekarpen ekonomiko puntualak . . . . .	16
·Kide berriak tailerretan . . . . .	26

•Nazioarte mailako ekintza programa. Bi urte hauetan zehar erparru honetarako finkatutako orientabide orokorra bete da eta lau aurreikuspenetatik hiru bete dira. Irlandako prozesuaren jarraipena bete egin da, Bruselaren behin baino gehiago izan eta ekimen ixilak garatu ditugu. Europako Parlamentuaren aurrean Bake positiboaren aldeko Foro europarraren proposamena ez da aurkeztu. Tailer Nazionala ekimen hau atzeratzen joan da arrazoi desberdinengatik eta beste lehentasun batzuk inposatu direlako. Edozein kasutan, hau ez da izan gizarte mugimendu honentzat jarduerarako lehentasun eremu bat.

•98/99 ikasturterako mobilizazio programa. Eraiki Proiektuak 98/99 ikasturtean zehar bake-prozesuaren aldeko mobilizazio jendetsua eta ahalik eta aniztasun handiena bilduko zuena deitzeko edo bultzatzeko aurreikuspena egin zuen. Bi urte hauetan gizarte mugimendu honek ez du mobilizazio deialdirik egin bakardadean, baina prozesuak koiunturak uzten zuen mailan antzeko koordinadetan kokatzen ziren mobilizazio garrantzitsuetan besteekin batera parte hartu, atxikimendua eman edo deialdia egin izan du. Desberdinen arteko elkarlanaren irizpidea elkarrizkatzat ospea edo protagonismoa baino askoz irizpide garrantzitsuagoa den neurrian, aurreikuspen hau bete dela esan genezake. elkarri izaera nazionalako sei mobilizazio handitan inplikatu da.

•Eraikikasi programa. Hau da balantzean maila altuenean bete den programa. 26.000 pertsona edo erakundez osatutako hartzailen datu base bat egin zen. Aurreikusi genituen lau kanpainak egin dira hiruhileko bakoitzean argitalpenaren tirada 40.000 aleetako izan delarik. 26.000 ale korreoz banatu dira hartzailen sarera eta beste 14.000 Tailer Lokalen jarduera zuzenaz. Laugarren kanpaina ez zen osotasunean garatu su-etenaren hausturaren lehen atentatuarekin sortu zen giroarengatik. Programak izan duen arrakastak, honekin jarraitzea eraman gaitu eta aurreikusi ziren lau kanpainaz gain, ziklo berri bati eman diogu hasiera. 2000ko udaberrian emanaldi berri bat kaleratu dugu eta hiruhilabetero beste batzuk jarraituko diote.

Kanpaina honen garapena irudikatzen duten datuak hurrengoak dira:

·Kartelak.....	14.000 ale
·Pankartak.....	8.500 metro
·Esku-orriak.....	340.000 ale
·Argitalpenak.....	200.000 ale
·Kale-irteerak.....	117
·Ekintzak(forook, mahainguruak, hitzaldiak).....	130

•Beste agente batzuekin elkarlanerako programa. Ere mu honetan ere elkarrik soberan bete ditu Eraiki Proiektuan eginiko aurreikuspenak. Dena dela, lan honek bi hutsune izan ditu: (1) Bakearen Aldeko Koordinakundearekin lankidetzat maila ez da nahikoa izan; eta (2) elkarlanerako espazioetan euren burua euskalduntzat dutenak eta euren burua espainoltzat dutenak biltzea lortu ez izana. elkarri batez ere lau espazio hauetan aritu da elkarlanean: Lizarra-Garaziko Foroa, Batera (eta herrietako beste zenbait plataforma), Bakearen Aldeko Koordinakundearekin elkarlanerako markoa eta Eusko Jaurlaritzaren Humanizazio Plana. Hauetan guztietan erraztu, elkarlanean aritu, ez baztertu eta demokrazian sakondu irizpideak gauzatzeko mentalitatearekin aritu da. Honetaz guztiaz gain, herrietan desberdinen arteko esperientzia ugari garatu dira.

Elkarlan esperientzia honen datuak hurrengoak dira:

—Lizarra-Garaziko Foroa

- Parte-hartze erregularra bilera Iraunkorretan eta Osoko Bilkuretan.
- 10 dokumentuen aurkezpen ez publikoa Idazkaritzako alderdi guztiei edo batzuei gogoeta, kritika, autokritika eta proposamenekin.
- Zehaztu ezin diren eta foro honekin harremana duten hainbat gestioetan parte-hartzea.
- Parte-hartze aktiboa 43 Lizarra-txikitan.

—Batera (eta herrietako beste plataformak)

- Osoko bilkura guztietan parte-hartzea.
- Garatutako kanpainei laguntza.
- Herrietako 56 plataformetan parte-hartze aktiboa.

—Bakearen Aldeko Koordinakundearekin elkarlanerako markoa

- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 50. urteurrena zela-eta «Hitzetatik ekintzetara» lelopean NBEko Informazio Sailak urtero GKEekin antolatu ohi duen bere 51. Konferentzian, parte-hartze bateratua.
- 1998ko abenduaren 9an Bilbon Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 50. urteurrena zela-eta Bakearen Aldeko Koordinakundearen eta elkarriren ekimen bateratua.
- «Adiskidetzat kulturaren alde» manifestu bateratuaren sinadura eta aurkezpen publikoak.



- Bilboko Elizbarrutiak antolatutako «hitzak desarmatu» kanpainaren amaiera ekitaldian Bakearen Aldeko Koordinakundearekin batera parte hartu genuen. «Bakea eta adiskidetzearen alde zortzi ordu» ekimenean.

- Herrietan 9 ekintza bateratu.

—Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren Humanizazio Plana.

- Planaren diseinuan eta aurkezpenean parte hartu dugu.

- Lankidetzaz berezia gizaritearen parte-hartzea, biktimak eta bake hezkuntza arloetan.

- Esku-hartze Programa Orokorra Programa honetarako finkatu ziren aurreikuspenak osotasunean bete dira. EPOak edo seiheroko Esku-hartze Programa Orokorra honen ondorio zuzena dira. Gizarte mugimendu honen jarduera osoa modu egokian ordenatzeko eta programatzeko balio izan dute. Dokumentuak zegokien epetan landu eta onartu dira. 4. puntuan Eraiki Proiektuan aurreikusi ez ziren eta programa honen garapenean txertatu diren programak aztertuko ditugu.

- Finantzaketa programa. elkarriren Plan Estrategiko berriaren dokumentazioan finantzaketari buruzko ponentzia berezi bat egin da, bertan arlo honetako azken bi urteen balantze orokorra jasotzen delarik. Dena den, aurreikuspenak bete eta gainditu egin direla esan genezake: aurrekontuak zorrotz bete dira, ohiko gastua eta ekimenak finantziatzeko bitarteko nahikoak lortu eta zorra murriztu egin da.

- Antolaketa programa. elkarriren Plan Estrategiko berriaren dokumentazioan antolaketari buruzko ponentzia berezi bat itsatsi da, bertan arlo honetako azken bi urteen balantze orokorra jaso delarik. Laburpen moduan aurreikuspenak nahiko ongi bete direla aurreratu genezake: antolaketa eta tailerren egitura etengabe sendotu eta berritu da, aurreikusitako ekimenak egin ahal izan ditugu eta kide edo laguntzaile berriak hurbildu edo Tailer Lokal berriak sortu dira, nahiz eta azken hau ahalegin gehiago eskatzen duen erronka bat izan.

Hurrengo datuek epe honetan elkarrik jorratu duen barne jardueraren ideia bat eskaintzen dute.

·Topaketa Nazionalak .....	2
·Herrialde batzar prozesuak .....	11
·Herrialdeko koordinazio bilerak .....	30
·Koordinazio kontseiluak .....	4
·Mintegi Nazionalak .....	6
·Urteurrenak .....	2

#### 4 Eraiki Proiektuari EPOen bidez txertatutako esku-hartze programen ebaluazio orokorra

Eraiki Proiektuan aurreikusita eta programatua zegoenaz gain, seiheroko Esku-hartze Programa Orokorra (EPOak) ekimen edo lan programa berriak txertatzeko tresna baliogarriak suertatu dira. Kasu guztietan txertatutakoa

zubigintzan 2.000 ordu

Eraiki Proiektuaren filosofia orokorraren barruan kokatu da. Zenbait kasutan, ekimen hauek Eraiki Proiektuan aurreikusitako programen ondorioak dira. Beste kasu batzuetan, egoera berak bultzatu gaitu aurretik planifikatuta ez zeuden ekimenak diseinatzen.

Ekimen multzo hau bi zati handitan egituratuko dugu: (1) gizartearen oinarrian adiskidetze kultura bat hedatzearekin harremana dutenak; eta (2) politikaren eremuan jarreraren topagune eta hurbilketa marko batekin harremana dutenak.

#### **4.1. Adiskidetze kulturaren hedapenarekin harremana duten ekimenak**

• Herri eta Udalen ekarpena bakearen eraikuntza programa. Gertaeren kurtsoak hutsune garrantzitsu bat atzematera eraman zuen elkarri. Bakearen eta konponbideen eraikuntzaren prozesua nagusiki politikaren kupulan eratzen ari zen bitartean, gizartearen oinarriaren parte-hartzea falta zen. Guztiok egiten ditugu parte-hartze horretarako deialdiak, baina ez ditugu bideak edo proposamen zehatzak eskaintzen. Helburu honekin elkarri «herri eta Udalen ekarpena bakearen eraikuntza» izenburua zeraman argitalpen monografiko bat kaleratu zuen 1999ko udaberrian. Txosten honek gizartearen parte-hartzea Udaletatik eraginkorra izan zedin marko teoriko bat eta hamar proposamen eskaintzen zituen.

Hau lan ildo iraunkor bat izan da orduetik hona. Txostena Nafarroako eta EAEko Udal guztietako Alkate eta udal talde guztiei banatu zitzairen. Txosten honen edukia gai honen inguruan herrian kontaktuak eta elkarriketak mantentzeko eta ekimen desberdinak aurrera ateratzeko erabilitako tresna izan da. Jarduera arlo honetako datu esanguratsuenak hurrengoak dira: 13.000 txosten argitaratu eta banatzeaz gain, Tailer Lokalek egindako gestio eta ekimenen kopurua mila ingurukoa da. Ondorioz, gaur egun eta etorkizun hurbilean, hau lanerako irekita darraien arlo bat da.

• Bakegintzarako Hezkuntza programa. Elkarriketaren esperientzia eta praktika gizartearen eremu guztietara hedatu behar da. Bakegintzarako Hezkuntzaren eremuari gizarte mugimendu honek arreta berezia eskaini dio. 1997an Ikastolen Elkartearekin batera lau unitate didaktiko eta irakasleentzat gida bat argitaratu ondoren (Haur eta Lehen Hezkuntzarako) elkarri ekarpen berri bat egin du 1999ko amaieran. «Hiru Txandatan» modulo didaktikoa, hezitzaileentzako gida didaktikoa idatzi, argitaratu eta banatuz. Gida honen helburua 12-18 urte bitarteko gazteetan elkarriketa-ohitura berrietarako eta entzuten ikasteko trebakuntza esperientzia bat bultzatzea da.

Metodologia hau ahalik eta gehien banatu eta aplikatzeko asmoz, bigarren hezkuntzan egitasmo hau garatzeko elkarri «partenariat» baten erakuntza bultzatu zuen. Modu honetara, eta arlo honetan lehen aldiz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Gaztedia Zuzendaritzak, Ikastolen Elkarriak, Euskadiko Gaztedi Kontseiluak eta elkarri elkarlanerako lan programa bat diseinatu zuten eta Hiru Txandatan metodologia praktikara eraman dute ikastetxe eta heziketa ez arautuan.

Proiektu honen fruitu ere izan dira Ikastoletan, EAEko Pedagogi Aholkularitza Talde guztietan eta Nafarroan hala eskatu duten zentroetan egin diren mintegiak. Eztabaida taldeak antolatu dira baita gazte taldeen sarean ere.

Arlo honen barruan azpimarratzekoa da baita Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Garatu planen barruan irakasleen formakuntzara zuzendutako «gatazken eraldaketa eta bake hezkuntza»ren inguruan antolatutako diren bi ikastaro ere.

·Argitaratutako dokumentuak.....	8.000
·PATetan eta Ikastetxetan antolatutako mintegiak.....	19
·Hezkuntza ez-arautuan, gazte taldeen sarean eta Gaztedi Kontseiluaren bitartez antolatutako mintegi edo foroak.....	24
·Sei foro hauetan parte hartu duten taldeak.....	63

•Argitalpenen programa. Memoria honetan ikus daitekeen bezala, ekoizpen editoriala garrantzi handikoa da elkarrirentzat. hileroko aldizkariak, elkarrikasi eta eraikikasi bildumetako argitalpen monografikoez gain, hurrengo ekimenak nabarmendu daitezke:

- Durangoko Azokan parte hartu izana.
- Dossiera: ETAren su-etena I eta II.
- «Zer da elkarri?» karpeta argitarapena lau hizkuntzetan.
- elkarri aldizkariaren 50. alea kaleratu izanagatik Bilboko Carlton Hotolean antolatutako festa, parte-hartze eta aniztasunean arrakasta handikoa izan zena.

•«Bakea Ereiten» ikus-entzunezko dibulgazio programa. Eraiki Proiektuan aurreikusi ez ziren ekimenen artean nabarmentzekoa da elkarri zine formatoan (16mm) hauteskunde kanpaina baten testuinguruan herri bateko bizipenei buruzko dokumental bat egin duela lankidetzan. Produktua amaituta dago eta bere helburua da proiektioaren ondoren Estatuan zein Euskal Herrian adiskidetzeko kulturaren inguruan eztabaida eraikitzaileak bultzatzea.

#### **4.2. Politikaren eremuan topagune eta hurbilketa marko baten bultzadarekin harremana duten ekimenak**

•Indar politikoekin harremanerako programa. Hau publizitaterik gabe eta isiltasunean jorratu den lan arloa izan da. Garatutako jardura bi eremu nagusitan zatitzen da: alderdi edo kargo instituzionalekin bilerak eta txostenak edo proposamenak banatu hauen artean. Lan honen izaera isilak hauen edukiak argitara ez ateratzea eskatzen du. Edozein kasutan, arlo honetan bereziki koordinazio nagusiak inbertitu du bere lanaren zati garrantzitsu bat.

•Nafarroari buruzko programa berezia. Gizarte mugimendu honen nahietako bat Nafarroa bakearen eta konponbide demokratikoen eraikuntza prozesuan lehen lerroan egotea da. Su-etenen aurretik eta arrazoi gehiagorekin oraindik su-etenen garaian. 1999ko ekainan elkarri «Bake-prozesua Nafarroan» txostena argitaratu eta banatu zuen.

Datuak hurrengoak dira:

·Argitaratu eta banatutako dokumentuak . . . . .	5.500
·Aurkezpena . . . . .	1
·Kale-irteerak . . . . .	1
·Esku-orriak . . . . .	5.000
·Hitzaldiak . . . . .	8

Ekimen honen jarraipen bezala, 1999ko azaroan 174 pertsona esangurat-suk sinatutako «Nafarroan bake-prozesuaren aldeko Manifestua» bultzatu zuen.

Datuak hurrengoak dira:

·Aurkezpena . . . . .	1
·Kale-irteerak . . . . .	4
·Esku-orriak . . . . .	10.000
·Prentsa iragarkiak . . . . .	2

•Biktimei buruzko programa berezia. Gizarte mugimendu honen arreta berezia izan duen beste gai bat oinazea eta biktimak bake-prozesuan izan da. 1999ko maiatzan eta dokumentazio eta talde afektatuekin elkarrizketa lan luze baten ondoren elkarrik «biktimak bake-prozesuan» monografikoa argitaratu zuen. Korreoz eta Tailer Lokalen bidez 10.000 ale banatu zituen. Txostenean indarkeriaren eta giza eskubideen bortxaketaren ondorioak pairatu dituzten pertsona guztiak bake-prozesu batean tratatzeko proposamen oso bat egin zen. Ondoren eta diskrezio osoz, elkarrik gai honen inguruan oinarritzko kontsentsuetara heltzeko aukerak aztertu ditu. Bukatu gabe dagoen lan bat da.

•Presoei buruzko programa berezia. Presoen eta hauen senideen giza eskubideen defentsan egin diren ekimen eta plataformetan parte hartzeaz eta laguntzeaz gain, gizarte mugimendu honek beste hainbat ekimen garatu ditu. Hauen artean hiru dira nabarmenenak:

·1998ko abenduan «Gartzelaren azterketa. Gartzelako baldintzak leuntzeko proposamenak» monografikoa argitaratu eta banatu zen. Dokumentu honetan gartzela instituzioa aztertzen da, gartzela humanizatzekeo proposamen bat aurkezten da eta gehigarri batean «presoak bake-prozesuan» gaia jorratzen du Hegoafrika, Palestina eta Irlandako kasuetako esperientzien ekarpenak jasoz. Txosten hau giza eskubideekin harremana duten erakunde gehienetara banatu zen.

·1999ko urrian sakabanaketa politikarekin amaitzeko proposamen berezi bat jasotzen zuen espetxe-politika eta bake-prozesuari buruzko txosten bat bidali zitzaien Kongresuko eta Senatuko talde parlamentario guztieri.

·Komunikabideetan esku-hartze ildo iraunkorra izan da espetxe politikaren salaketa.

•Su-etenaren hausturaren aurrean programa berezia. Su-etenaren hausturak sortutako krisiak 2000ko otsailan «erantzun argiak behar ditugu» lema-pean kanpaina azkar bat diseinatzera eraman gintuen. Kanpaina buruzagi politikoei zuzendutako hiru galdera jasotzen zituen triptiko batean zetzan. Kanpaina honen datuak hurrengoak dira:



Argitaratu eta banatutako triptikoak .....	100.000 ale
Tailer Lokalen kale-irteerak .....	45
Egunkarietan orri osoko iragarkiak .....	9
Alderdiekin mahainguruak .....	2
Aurkezpen ekitaldiak .....	3

•**Nazioarteko programa.** Eraiki Proiektuan nazioarteko arloan aurreikusi zenaz gain, programatu ez ziren beste ekimen batzuk bultzatu ditugu. Hurrengo hirurak dira nabarmenenak:

- Enbaxada eta Kotsulatuekin harremanak. elkarrik Enbaxada eta Kotsulatu desberdinekin kontaktuak dauzka euskal gatazkari buruzko gizarte mugimendu honen balorazioak eskaintzeko.
- Nazioarteko txostena. 1999ko urrian elkarrik bake-prozesuak une horretan bizi zuen egoera delikatuari buruzko txosten bat idatzi zuen. Nazioarteko instituzio desberdinetara eta Europar Batasuneko, Latinoamerikako, EE.BB.etako eta Kanadako Enbaxadetara banatu zen.
- Quebec. Quebecoko esperientziari buruzko ikerketa zabal bat martxan dago, hemendik gutxira argitaratuko dena.

•**Prensa eta komunikazio Programa.** elkarriren esku-hartzea ideiak eta proposamenak ezagutzera emateko, bere jardueraren zati garrantzitsu bat hartzen du. Hurrengo datuak lan eremu hau isaldatzen dute 1998ko apiriletik 2000ko apirila bitarte:

·Prensa-oharrak .....	45
·Prensaurrekoak .....	20
·Iritzi artikuluak .....	50
·Kongresuetan, jardunaldietan eta hitzaldietan parte-hartzea .....	70
·Laguntzaile edo diru-emateei bidalitako komunikazio edo egoerari buruzko txostenak .....	6
·Prensa idatzian elkarrizketak .....	40
·Tertulietan parte-hartzea .....	24
·Elkarrizketak irrati eta telebistetan .....	gutxi g/b. 220

## 5 ondorioak

1. Eraiki Proiektuak oso emaitza onak lortu zituen egoeraren diagnostiko-ari eta proposamen estrategikoei zegokienez. Proiektu hori izan da, besteak beste, elkarriren lanaren ardatza eta orientabidea 1998ko ekainetik 2000ko ekainera bitartean.

2. Eraiki Proiektuan aurreikusitako ia jarduera guztiak burutzea lortu dugu. Gainera, ongi erantzun die euskal gatazkan azken bi urteotan izan diren gertakari garrantzitsuei. Dena den, prozesuaren premiek eraginda, hasieran aurreikusita ez zeuden ekimen ugari antolatu behar izan ditugu.

3. Ikuspegi kualitatiboari dagokionez, elkarriren lana serioa, eraikitzailea eta proposamen ugariren iturburua izan da. Ikuspegi kualitatiboari dagokionez, gizarte mugimendu honek beste inoiz baino askoz ere jarduera gehiago gauzatu ditu.

4. Bada, ordea, autokritikarako arrazoirik ere, ekimen edo jarduera esparru batzuen emaitzak ez baitira behar bezain onak izan:

—Bakearen Aldeko Koordinakundearekiko lankidetzaz ez da behar adina garatu. Testuinguruak, errealitateak eta gizarteak berak ezinbestez eskatzen digute lankidetzaz handiagoa, zabalagoa eta eraginkorragoa lortzea.

—Jarduera gehiegi, eta sakabanatuegiak. Aldi batzuetan, batik bat 1999ko udaberrian, hainbat eta hainbat ekimen sortu ziren aldi berean esparru anitzetan eta, ondorioz, esku-hartzeek eta mezuek ez zuten bateratasun handirik izan.

—elkarriren Tailer Lokalik ez duten herriei ez diegu behar besteko arretarik eman antolamenduari dagokionez.

5. Ondorengoak dira, bestalde, emaitzarik onenak lortu dituzten jarduera esparruak:

—Dokumentuen eta proposamenen argitalpen eta banaketak. Azken bi urteotan 33 argitalpen kaleratu eta banatu ditugu, maila onekoak denak kalitatearen eta edukien aldetik.

—Eraikikazi kanpainari eta bestelako ekimenei esker, Tailer Lokalek jarduera diseinu argia eta zehatza izan dute.

—Zuzeneko harremanak, eta zuhurrak, izan ditugu alderdiekin, erakundeekin eta alor guztietako eragileekin. Esperientzia baliagarria izan da: batetik, elkarrizketa zirkularrak gauzatu ditugu; bestetik, analisiak, informazioa eta proposamenak trukatzeko aukera ere izan dugu.

—Finantzen alorrean gizarte mugimendu honen egoera gero eta hobea izan da azken bi urteotan, eta etorkizunean ere horrela jarraituko duela dirudi.

6. Gainontzeko lan esparruetan ere nahiko ongi bete dira aurreikuspenak.



7. Eraiki Proiektuaren ordez ezarriko dugun Plan Estrategikoari dagokionez, hiru ondorio nagusi aipatuko ditugu lehenbizi:

—Egoeraren diagnostikoa eta proposamen estrategikoaren edukiak egoki eta zehaztasun handiz finkatzen saiatu behar dugu.

—Bi irizpide izango ditugu beti kontuan jarduera programa zehatzak antolatzerakoan. Batetik, (1) esperientziak argi erakutsi digu zein jarduera diren egokienak elkarriren potentzialtasun eta motibazioentzat; beraz, jarduera horiek sustatzea komeni da. Bestetik, (2) metodo selektibo eta zehatzagoak erabili behar ditugu jarduera plan orokorrak aukeratzeko.

—elkarriren antolamendu lokalari aurreko etapan baino arreta handiago eman behar zaio.





zubigintzan 2.000 ordu



Egoeraren azterketan oinarritutako agiri honek berebiziko garrantzia du elkarriren Plan Estrategiko berria osatzen duten agiri multzoaren baitan. Izan ere, honetan oinarritzen dira gainerako guztiak. Diagnostiko zuzena egiteak lan eta jarduera antolamendu zuzenera eramango gaitu; diagnostiko okerra egiteak, berriz, alderantzizkoa eragingo luke. Hauexek dira diagnostiko honen erronkak: (1) azken bi urteotako alderdirik funtsezkoenak ateratzea, (2) oraina behar bezala aztertzea, eta (3) etorkizun hurbileko gakoak zehaztea.

## 2 egoeraren diagnostikoa

Esku artean duzun agiri honen helburuak honakoak dira, atalez atal:

- Lehenengo atala: azterketa metodoa zehaztea.
- Bigarren atala: azken bi urteotako funtsezko esanahia ateratzea.
- Hirugarren atala: oraingo egoeraren zailtasun nagusiak identifikatzea.
- Lauugarren atala: zuzen daitezkeen gabeziak identifikatzea.
- Bosgarren atala: egungo egoerako abaguneak eta puntu indartsuak identifikatzea.
- Seigarren atala: diagnostiko honen gaurkotasuna eta ebaluazioa, batetik, eta prozesuaren bilakaera adierazleak, bestetik, ezartzea.
- Zazpigarren atala: diagnostiko osoaren laburpena egitea.



## 1 azterketa metodoa

Aurreko esku-hartze proiektuan bezala, oraingoan ere zein azterketa metodo erabiliko dugun zehaztuko dugu, egoeraren diagnostikoaren edukiari ekin baino lehen. Eta, jakina denez, hiru irizpide metodologikotan oinarritu ohi gara egoera aztertzeko:

### 1.1. Zehaztasuna

elkarrik burututako azken diagnostikoak dira irizpide honen erreferentzia. Eta, oraingo diagnostikoari dagokionez, batez ere laugarren Esku-hartze Programa Orokorrean (EPO-PIG 4) aurkeztutako diagnostikoa. Beraz, aurrekoetan egin bezalaxe aztertuko dugu egoera oraingoan ere. Izan ere, horrela baino ezin daiteke egin prozesuaren azterketa dinamikoa. Eta bestalde, diagnostiko lanean gutxieneko diziplina, zehaztasuna eta jarraitasuna izatea bermatzen du horrek.

### 1.2. Abaguneak

Zailtasunen eta abaguneen eremuak identifikatzen eta bereizten ditu irizpide honek, gero bereziki azken horiek ardatz hartzeko. Zentzu horretan, honakoak adieraztea deritzogu interesgarri: alde batetik, egungo egoeraren gabeziak eta beharrak, baina beti ere hobetu beharreko alderdi gisa; eta bestetik, puntu indartsurik eta abagune alderdirik argienak. Gogoan izan EPZINS metodoa («Elementu Positiboak Zehaztasunez Identifikatzea, Nabarmentzea eta Sustatzea»).

### 1.3. Saiakuntza/Errakuntza

Azken bi urteak aztertzen ditu, baina ikuspegi orokorrean kokatuz, hots, prozesu eta etorkizun ikuspegitik. Beraz, dinamikoki hartzen ditu bi urteok, ezinbesteko saiakuntza/errakuntza testuinguruaren baitan. Bake-prozesu orotan jazoko dira aldiak, halaberrez. Eta zenbait saiok huts egin izana edo nahi bezain arrakastatsuak ez izatea ez dugu zertan porrot gisa hartu. Aitzitik, pasatu beharreko esperientzia dira, behin betiko saiora hurbilduko gaituen esperientzia, izan ere; eta horrelaxe ulertu behar ditugu.

Oharra: Aurreko zenbait agiritan (ikusi «EPO-PIG 4», 2000ko urtarrila; eta baita «Bake biderako prozesuaren egoera txostena», 2000ko otsaila) behar bezain zabal aztertu izan ditugu su-eten aldia nahiz hau apurto ondoren sortutako egoera. Ez ditugu txosten haietan azaldutako argudio guztiak errepikatuko, egun ere gaurkotasuna dutela baiteritzogu eta, beraz, ondorengo ataletarako oinarri hartu baititugu.

## 2 azken bi urteotako funtsezko esanahi bikoitza

Eraiki Proiektuaren iraunaldi berean –1998. urteko erdialdetik 2000. urteko erdialdera– gatazka prozesuak azken hamarkadetako bestelako norabidea hartu du. Horixe da, ziurraski, bi urteotako ondoriorik garrantzitsuena: bakeranzko bidean norabide aldaketa jazo dela, hain zuzen ere. Begien bistakoa izango da segurutik, baina komeni da aipatzea: gure herrian ere lor liteke eta bideragarria da bake-prozesua. Aurrekariak egon badaude. Eta euskal gizarteak egiaztatu ahal izan du. Su-etenak iraun zuen bitartean distentsio eta elkarrizketa prozesu baterako Espainiako Gobernuaren ekarpen erreal bat bizitzea falta izan zitzaigun. Dena den, hamalau hilabeteko su-etenaren izan dugu, benetako saiakuntza; izan ere, gertutik, praktikan eta egunerokoan bizi ahal izan dugu, denbora batez, bederen, bake-prozesua. Den-

denok atera ditugu ondorioak esperientzia horretatik, bai norbere nahiz besteren hutsegiteei eta ondo egindakoei buruz, baita ahalmenei eta mugei buruz ere. Bestalde, poztekoa da gatazka prozesuak hartu duen norabidea, elkarrik duela zazpi urtetatik aldarrikatu duena, hain zuzen. Bi ezaugarri nagusi ditu:

### **2.1. Elkarrizketa gehiago**

1998. urtera arte, indar politiko gehienek bakerako ekintzen ardatza honako irizpide gidarian oinarrituta zegoen: «demokrata guztien batasuna eta ezker abertzalearekin inolako elkarrizketarik edo elkarlanik ez izatea». Baina Lizarrako Akordioa etorri zitzaigun gure artera, eta irizpideak aldatu egin ziren. Hona Akordioaren ekarpen nagusia: su-etena baino lehen, bitartean eta ondoren, isolamendu irizpidea alde batera utzi eta inor kanpoan utziko ez duen elkarrizketari eutsi zitzaion. Jakina da aldaketa hori ez dugula denok aintzat hartzen, ezta lurralde guztietan ere; baina Euskal Herriko gehiengo soziopolitikoak paradigma berri horren aldekoa da.

### **2.2. «Indarkeriarik eza» gehiago**

Aurreko ondorioa politikoa da, soziologikoa baino. Baina bada beste ondoriorik ere, garrantzi soziologiko handiagoa eta prozesuaren etorkizunerako garrantzi handikoa; hauxe: gaur egun –Lizarrako Akordioak egindako bidearen eta su-etena ondoren–, duela bizpahiru urte baino are onartezinagoa da euskal gizartearentzat helburu politikoak lortzeko asmoz burutu-tako indarkeria. Bide politikoa ukitu ahal izan genuen hurbil-hurbiletik, indarkeriarik gabeko bidea, bide demokratikoa. Eta bide horri zerion etorkizunerako aukerak sumatu genituen. Baina su-etena apurtu egin zen. Itxaropena, hasieran; frustrazioa, gero. Horren guztiaren ondorioz, bai gizarteak eta bai sektore politiko guztiek –salbuespenik gabe– inoiz baino gehiago gaitzetsi dute indarkeria.

Laburbilduz, azken aldi honetatik bi ezaugarri azpimarratuko genituzke: elkarrizketa gehiago eta «indarkeriarik eza» gehiago. Elkarrizketaren aldeko konpromiso politiko handiagoa eta indarkeriarik ezaren aldeko konpromiso sozial handiagoa. Beraz, bestelako gizarte baldintzak, lagungarriagoak, bake- prozesuak aurrera egin ahal izan dezan.

## **3 zailtasunak**

Azken bi urteotako esperientzia oinarri hartuz eta oraingo –2000. urteko udaberriko– egoera aztertuz, bake-prozesuak gaur egun bi zailtasun nagusi dituela esan dezakegu.

### **3.1. Botere zentralaren ikuskera inobilista bake-prozesuarekiko**

Botere zentrala diogunean, ez gara ari Estatuko Gobernuaz bakarrik, hori baino eremu zabalagoaz baizik, nahiz eta PPko agintariak izan eremu horren buru. Botere zentralaz dihardugunean, beraz, beste botere sektore batzuek ere ari gara, PPko Gobernuari lagundu eta haren esanak bultzatu dituztenez, hain zuzen: sektore politikoez eta komunikabideez. Ikuskera guztiz inobilista du bake-prozesuarekiko (beste modu batzuetara ere dei dakioke: ikuskera estatikoa, pasiboa, ez laguntzailea edo ez mailaz mailakoa). Eta ez du parekorik nazioartean; bake bidean dauden prozesuetako beste irtenbide ereduetan ez dago horrelakorik. Arazoaren ikuskera erredukzionista du, azken finean. Garaipenak agintzen die pentsamoldea, baina ez soilik ETaren gaineko garaipenak, abertzaletasunaren gaineko garaipenak baizik.



«Pentsamendu sinpleek», demagogiak eta sofismek osatzen dute botere zentralaren argudio eskema. Honelako zerbait izan daiteke bere argudio eskema:

—ETAk armak uztea da bake-prozesua; hori eta hori baino ez. Presoen auzia baino ez da negoziagarria, eta hori ere baldin eta ETArek mugimenduak zer-nolakoak diren. Su-etena tregoa-tranpa da eta, beraz, Gobernuak ez du ezer egingo su-etena sendotzeko.

—Ez dago inolako gatazka politikorik; ondorioz, ez da beharrezkoa inolako elkarrizketa politiko osagarriak. Elkarrizketa politikoak, egitekotan, gero egingo dira, eta gaur egungo esparru juridiko politikora eta indarrean dauden instituzio prozeduretara mugatuko dira. Konstituzioaren barnean dagoena, horixe da demokratikoa; ez beste ezer. Konstituziotik kanpoko ideiek eta helburuek demokrazia hausteko arriskua eragiten dute. Ezin liteke konstituzionala beste Espainiarik.

—Gainera, elkarrizketa mugatu hori gauza dadin, sine qua non baldintza da EAJK eta EAK aurrez akordio oro etetea ezker abertzaletasunarekin. Elkarrizketa prozesu orotan proiektu konpartitu batek izan behar du abiabuntua, PP eta PSOE EAJrekin eta EArekin bat etorriko direneko proiektuak, hain zuzen. Irtenbidea: Lehendakaria PPkoa izatea.

—Aurreko guztiarekin batera, bere estrategia estatikoarekin bat ez datorren bakearen aldeko ekimen oro deskalifikatzen du, maltzurkeriaz. Eta komunikabideez baliatzen da horretarako, neurritz kanpo baliatu ere. Bestalde, giza eskubideen aurkako espetxe-politika darabil negoziazio truke gisa eta prozesuan tentsioa sortu nahian.

Argudio eskema horrekin oso zaila da, ezinezkoa ez bada, PPrekin prozesua konpartitzea. Nola gainditu zailtasun hori? Denen arteko elkarrizketa prozesu eraikitzailea antolatuz; horrela, politikoki argi eta garbi geratuko da horrelako jarrera (jarrera estatikoa, inobilista) duten bakarrak eurak direla.

### 3.2. ETArek ikuskera inposatzailea bake prozesuarekiko

Azken komunikatuetan dioena aztertu ondoren, argi geratzen da ETAK prozesuarekiko duen ikuskerak ere ez duela parekorik antzeko bake-prozesuetan. Ikuskera autoritarioa du. Prozesua baldintzatu eta mugatu egiten du; ahalmena indargabetzen dio Lizarrako Akordioaren eremuari, bereziki, eta ezker abertzaletasunari, zehazki. Lizarrak hamalau hilabete luzetan egin zaizkion eraso guztiei eutsi die, baina burua altza ezinik dabil lehenengo atentatua gertatu zenetik. ETArek ikuskerak hiru kontraesan argi ditu:

—ETAK prozesuaren bi aldeetan egon nahi du: prozesuaren epaile da, baita prozesuaren alderdi ere. Prozesua gidatu eta balioztatuko duen erakunde izendatu du bere burua, baina aldi berean prozesuaren alderdi gisa jartzen du. «Borroka armatua gainditzeko» printzipio nagusiak ezarri ez zik (orain arte egin bezala), orain bestelakoak ere ezartzen ditu, hala nola, egoeraren arabera erabakiak (botorik ez ematea), eduki politikoak, egutegi zehatzak, lurralde proiektuak, instituzio ereduak su-etenerako baldintza gisa. Su-etenen adierazpenaren edukiak irtenbiderako ateak zabaldu zituen bere garaian: irtenbide eredu bat genuen orduan begi aurrean, irtenbide eredu politikoa, demokratikoa eta elkarlanean. Su-etena etetearen adierazpenaren edukiak eta ondorengo komunikatuenak ate hori itxi egin zuten eta bestelako ere-

dua proposatu: eredu inposatzailea, alderdi politikoentzat ez ezik, gizartearentzat; bereziki gizartearentzat.

—ETAk ez du aztertzen zein den Euskal Herriko gizartearen gaur egungo nahia. Historiari edo lurraldeari ematen dio lehentasuna; horiek jartzen ditu herritarren aurretik. Baina herritarrok dugu erabakia. Lurralde eta instituzio eredu jakin bat inposatu nahi dute, Euskal Herriak horretarako zilegitasun historikoa duela-eta; baina ezin da horrelakorik egin, Euskal Herriko errealitate soziologikoa eta hautes errealitatea anitza baita. Paradoxikoa, baina, zera da: ETArentzat etorkizunean baino ez duela zentzurik herriaren nahiak. Autodeterminazio eskubidearen alde bateko ikuskera baino ez du. Euskal Herriak eskubidea du bere etorkizuna erabakitzeko, baita nola eta zein bidetatik lortu nahi duen erabakitzeko ere. Argi dago Euskal Herriak askatasuna nahi duela, bere etorkizuna erabakitzeko; eta argi dago, halaber, indarkeria lagun izan gabe erabaki nahi duela.

—Egia absolutuaren jabe bailitzan jokutzen du. Euskal herritarroi zer komeni zaigun ezartzen du, euskal gizartea adin nagusikoa ez bailitzan. Bere jarrerari, alde bateko jarrerari, abantailazko balioa ematen dio. Ezker abertzalekoak ez diren Lizarrako gainerako eragileen jarrerak edo iritziak deskalifikatzen ditu. «Nire alde edo nire aurka»; horixe da bere irizpidea, eta horren arabera jarduten du. ETAren ustez, indarkeriazko ekintza eta prozesu politikoa osagarriak dira. Gizartearen gehiengoak eta alderdi politiko gehienek, aldiz, arrazoi etikoak, politikoak eta onurazkoak direla eta, aurkakoa deritzogu: indarkeriazko ekintzak eta prozesu politikoa bateraezinak dira.

Ikuskera horrek zaildu egiten du prozesua. Zein aukera ditugu? Argi eta garbi uztea gizartearen nahia indarkeriarik eza eta elkarrizketaren aldeko konpromisoa direla. Garrantzitsua da ahal diren komunikazio bide guztiak zabalik mantentzea. Elkarrizketak eta negoziazioak aukera guztiak jorratze-

## 4 berriki izandako esperientziaren gabeziak (hobetzeko aukerak) eta prozesuari berriro ekiteko beharrak

ko balio behar dute.

Lizarrako Akordioak zailtasun ugariarekin egin du topo bidean, bai, baina gatazka prozesuak bake-bidean aurrerapauso garrantzitsuak ematea eragin ere eragin du. Ez da komeni, ordea, aurrerapausoetan edo zailtasunetan soilik geratzea. Aitzitik, ezinbestekoa da egondako gabeziak identifikatzea, hasitako bideari egoera hobetan jarraipena ematekotan. Izan ere, prozesuak izandako gabezia bakoitza, hutsegitea baino, hobetzeko aukera bat baita berehalako etorkizunerako. Eta bi gabezia edo behar nagusi izan ditu prozesuak:

### 4.1. Prozesuak ez du funtsik edo printzipiorik izan

Prozesuak oinarri-oinarrian izan du ahultasunik handiena: ez da printzipio sendo konpartiturik egon ez Lizarrako Foroaren barnean, ezta Forokoen eta hortik kanpo zeudenen artean ere. Eta funtsezkoa delakoan gaude. Hor dugu, adibidez, Irlanda: Hume-Adams Akordioa, Downing Street-eko Deklarazioa, Mitchell Printzipioak guztiak ere prozesuaren aldi bakoitzeko arauak zeintzuk izango diren ezartzeko asmoz oinarriak eta printzipioak zehaztearen adibide. Eta horrela behar du. Printzipioak zehazteak arauak



ezartzen ditu eta konpromiso politikoak hartzea errazten du.

Lizarrakoa lehen saioa izan da. Eta ziurraski, lehenengoa izanik, ezin zuen bestelakoa izan. Baina egia da, halaber, konpromiso politikoetan oinarritutako saioa izan zela, ez printzipio komunetan oinarritutakoa. Mailaz-mailako zenbait helburu jarri zitzaizkion, eta haiek izango ziren, baldin eta lortzen baziren, prozesuak aurrera egingo zuela bermatuko zutenak. Sortu ziren, ordea, lehenengo desadostasunak, konpromisoak betetzeari buruzko interpretazio desberdinak; eta desadostasunak sortu ahala, prozesua gain behera hasi zen. Eta ez da harritzekoa, prozesuari premisak falta baitzaizkio. Izan ere, premisek emango baitute aukera prozesuaren bilakaerak nolakoa izan behar duenari buruzko interpretazio malguagoa eta emankorragoa egiteko.

Dena den, arazoa ez dago soilik Lizarraren barnean. Aitzitik, eremu politiko guzti-guztitan izan da agerikoa krisi politikoa, ETAk su-etena hasi zuen egun beretik. Eta horren arrazoi nagusia honakoa da: Lizarrako Akordioa osatzen zutenek ez zutela lortu Foroan parte hartu nahi ez zutenekin printzipio orokor batzuetara iristea, batetik, eta bestetik, Lizarratik kanpo zeudenek ez zutela inolako ahaleginik egin aukera historiko bikaina (alde bateko, baldintzarik gabeko eta mugagabeko su-etena) aprobetxatzeko. Ez zen erantzunik eman; ez dago Downing Street espainiarrik. Hori baino ez.

Lizarrako Akordioaren edukiak gatazkaren konponbiderako metodologia demokratiko bat eskaintzen zuen; hori zen bere nahia. Eta, beraz, eduki hori bera izan zitekeen aipatu printzipio konpartituen zehaztapena, edo hurbilketa. Baina, pixkanaka, horretarako gaitasuna galdu zuen, honako bi arrazoiengatik: Espainiako Gobernuaren jarrera inobilistarengatik, batetik, eta Lizarrako Foroaren diskurtsoa eta dinamika nazio eraikuntzarekin nahastu zirelako, bestetik.

Hori guztia dela-eta, honako ondoriora iritsi gara: gatazkaren konponbiderako beste edozein saiori ekiteko, lehen-lehenik eta konpromiso politiko zehatzak hartu baino lehen ezinbestekoa dela konpromiso hori zein printzipio konpartituetan oinarrituko den zehaztea. Hurbilen daudenen artean eta, batez ere, aniztasun zabalenaren baitan, komunak izan daitezkeen printzipioak, premisak edo arauak zehaztu behar dira, beraz. Orain arte gertatutakoa ikusita, badirudi Euskal Herrian konponbide prozesu orok aurrera egin ahal izateko ezinbesteko baldintza dela hark bere printzipio orokorretan barne hartzea EAEko zein Nafarroako gehiengo pluralaren ordezkari politiko. Horrela izan ezean ez dirudi prozesuak aurrera egin dezakeenik.

#### **4.2. Prozesuak edukiak jarri ditu prozeduren aurretik**

Bi urte hauetan fronte askori egin behar izan zaio aurre aldi berean. Horrelako prozesuak ezin dira egituratu gainerako guztiak barne hartuko dituen prozesu bakar batean oinarrituta. Aitzitik, prozesu edo azpiprosesu ugari gertatzen dira aldi berean, eta horrelaxe antolatu behar da; eta prozesu horiek, elkartzekotan, egingo dute bat aldi erabakigarrian.

Su-etenak eta Lizarrako Akordioak bat egin duten garaian, honako prozesuak jazo dira, gutxienez: (1) indarkeriarik eta kale borrokarik eza, (2) nazio eraikuntza eta lurraldetasuna, (3) gatazka politikoa demokratikoki eta alderdi politiko guztien artean erabakitzea, (4) biktimak, (5) kudeaketa instituzionala eta gobernagarritasuna, (6) presoak, (7) Nafarroa edo Iparraldea prozesu bereizgarri gisa... Gertaera ugari, beraz. Harrigarria, bai, baina nor-

mala, bestalde. Konponbiderako aukera agertu zen, eta horrek konpondu beharreko arazo guztiak agertzea eragin zuen.

Lizarrako unibertsoak, bestelako laguntzarik gabe eta oztopo askorekin, ahal bezala kudeatu ditu prozesu horiek guztiak. Funtsean, ez du bereizketarik egin, ezta nabardurarik egin ere EAeko, Nafarroako eta Iparraldeko errealitateen artean. Nazio eraikuntzaren prozesua (edukiak) eta gatazkaren konponbiderako prozesua (prozedurak) nahastu egin dira. Lizarrak bi gauza egin nahi zituen aldi berean: (1) gatazkaren konponbiderako metodo bat eskaini gizaritari, denona eta denon artean egina; (2) ETA konbentzitu indarkeriaren aurrean eta ezker abertzalearen nazio eraikuntza helburuetarako askoz egokiagoak zirela, baita egingarriak ere, indar abertzaleen arteko hitzarmenak eta akordioak.

Bi prozesu horien arteko norgehiagokan nazio eraikuntzaren edukien diskurtsoa gailendu zaio gatazka politikorako prozedura demokratikoak aldarrikatzen zituen diskurtsoari. Baina ez soilik Lizarrak hala nahi zuelako edo Lizarraren okerrengatik, baizik eta baita botere zentralek beste bide guztiak oztopatu dituelako ere.

Espainiako Gobernuak, PPK, PSOEek eta horien aliatuek ere beste horrenbeste egin dute. Denen artean adosteko moduko prozedurei buruzko diskurtso, proposamen edo gogoeta oro alde batera utzi, eta euren eduki alternatiba sendotzeari ekin diote: «Irtenbidearen edukiak Konstituzioa eta Estatutua dira».

Zein ondorio atera dezakegu? Eraikuntza ororen ordena logikoa honakoa baldin bada: (1) printzipioak, (2) prozedurak eta (3) edukiak, edo bestela esanda, oinarriak, egiturak eta osaera; ordena hori bada, beraz, prozesuak edukien osaera izan du ardatz eta ez ditu alde aurretik ezarri ez printzipioak edo oinarriak, ezta prozedurak edo egiturak ere. Edukiak jarri ditu prozeduren eta printzipioen aurretik. Argi eta garbi geratu da ez dela gai izan ez sektoreak horretara biltzeko, ezta alderdien arteko elkarriketa eremu plurala eratzeko ere.

Etorkizunean, prozesuak agertutako gabezia horiexek izan beharko dute lehentasuna eta hobetzeko aukerak izango dira. Helburuak, beraz, honakoa izan beharko luke hemendik aurrera: zein printzipio eta prozedura izan daitezkeen aniztasun zabalenaren baitan adosteko modukoak bilatzea. Gatazka politikoaren alderdi guztien arteko konponbiderako eta bakerako prozesu nagusiaren printzipioak eta prozedurak zehaztea. Eta, halaber, prozesu nagusiarekin batera gertatuko diren azpiprozesuak ordenatzeko printzipioak eta prozedurak zehaztea.

### 4.3. Adibide gisa

Printzipioen, prozeduren eta edukien arteko bereizketa hobeto ulertzeko asmoz, hona hemen egiazko adibide bat, Irlandako bake-prozesutik ateratakoa.

#### a) Printzipioen adibidea

Mitchell printzipioetako bat: «negoziazioetan alderdi guztien artean lortutako akordio ororen zehaztapenak onartzea, eta hitzartutakoaren



alderdiren bat aldatu nahi denean metodo demokratikoetara eta ez indarkeriazkoetara jotzea».

b) Prozeduren adibidea

Indar politikoen arteko elkarrizketetan jarraitu beharreko prozedurei buruzko akordioak. Azpimarragarria da, prozedura adibide gisa, honakoa: «behar besteko adostasuna» irizpidea ezartzea, hots, zehaztea zein den akordioek aurrera egin ahal izateko eta oztopoak jartzeko jarrera dutenen betoa saihesteko beharrezko gutxieneko adostasuna.

c) Edukien osaeraren adibidea

Adibide ugari jar daitezke. Eta honakoa aukeratu dugu, nahikoa argigarria baita: Irlandako Iparaldearen eta Hegoaldearen arteko instituzioen elkarlanerako proiektua.

Prozesuak edukiei buruzko akordioaren edo konpromisoaren bila ekiten badio bideari (Iparreko-Hegoko instituzioak) jarraitu beharreko printzipioei

## 5 abaguneak eta puntu indartsuak

eta prozedurei buruzko aurretiko pausoak aldeztu gabe, oso zaila izango da prozesuak aurrera egin ahal izatea.

Azken bi urte hauetako gertaerek politikagintza eta gizartea bera astindu dute. Aurrerapenak, zailtasunak, konpontzeko moduko gabeziak ditugu orain begi aurrean. Eta baita identifikatzea, azpimarratzea eta sustatzea merezi duen abaguneren edo puntu indartsuren bat edo beste ere. Aurreko garaiekin alderatuz gero, esparru sozial eta politiko jakin bat sendotuta ageri zaigu gatazkaren ondoren.

Esparru horren ustez elkarrizketak izan behar du arazoak konpontzeko metodo nagusia, eta uste osoa du hiltzeak ez garamatzala inora eta inobilismoak ez duela irtenbiderik eskaintzen. Egia da, bai, esparru hori bi ondorioren, bi jardueren, artean ezinean dagoela; alegia, indarkeriazko ekintzek eragiten duten ondorio indargabeen eta inobilismoak eragiten duen frustrazioaren artean dagoela (azken horrek elkarrizketari gaitasun oro ukatzen baitio eta konponbidea poliziaren esku baino ez baitu uzten).

Dena den, esparru sozial eta politiko horixe da oraingo egoeraren puntu indartsua eta aukera gune nagusia. Izan ere, bere esku daudelako gaur egungo blokeo egoera gainditzeko gakoak. Eta oraingo krisi hau prozesu emankor bilakatzeko, honako lau betebeharrak hartu behar ditu bere gain, ezinbestean:

- Indarkeriarik ezaren eta elkarrizketaren ereduari argi eta sendo eustea eta mantentzea, zailtasunak eta ezbeharrak agertuta ere.
- Bake-prozesurako printzipioak eta prozedurak zehaztea, beti ere eskaintzatik kanpo inor ez uzteko modukoak eta behar besteko anitza izango den gehiengoak onartzeko modukoak.
- Inurri lana egitea elkarrizketaren eremuan printzipio eta prozedura eskaintza horren inguruan, norabide guztietan esparru sozial eta politikoak zabaldu eta irabazteko, batez ere ezker abertzalearen eta sozialisten norabidean.
- Esparru horrentzat fronte itxurak baztertzea. Izan ere, unibertso soziologiko eta politiko hori oinarritzko bat etortzeen eremua

## 6 diagnostiko honen gaurkotasuna eta ebaluazioa, eta prozesuaren bilakaera positiboaren adierazleak

baino ez da, muga organikorik gabea, eta bere helburu nagusia elkarrizketarako eta elkarlanerako guneak zabaltzea da.

### 6.1. Gaurkotasuna

Diagnostiko honek eta, batez ere, aurreko puntuan aipatu lehentasunek egoera guztietan dute gaurkotasuna, bakar batean izan ezik. Su-etenik gabeko egoeretarako balio du; bizi berri dugun bezalako su-eten egoeretarako ere balio du; baliagarria izango litzateke, halaber, su-eten iraunkorreko egoeretan, eta baita denbora mugatuko edo hilabete gutxi batzuetarako su-eten egoeretan ere. Zentzu horretan, beraz, ez dugu aukerarik baztertzen. Kasu horietan guztietan elkarrizketaren gunea eta indarkeriarik eza sustatzeak eta printzipio eta prozedura proposamenei ekiteak izango lukete lehentasuna.

Baina, esan bezala, badago egoera bat diagnostiko honek eta esku-hartze plan osoak baliagarritasuna galduko lukeena. Elkarrizketarekin eta indarkeriarik ezarekin konprometitutako esparrua gain behera etorri eta orain arteko jarrerak birpentsatu eta aldatuko balitu, batetik, eta indar politiko gehienek isolamendu irizpidea eta elkarrizketa ukatzearen irizpidea hartuko balute berriro, bestetik, orduan oso bestelako egoera sortuko litzateke eta agiri honek ez luke balioa.

### 6.2. Ebaluazioa


Horrexegatik ez du diagnostiko honek, ezta Plan Estrategikoak ere, denbora mugarik, hasiera batean behintzat. Eraiki proiektuak bi urteko etorkizuna zuen. Baina Plan Estrategiko honek ez du a priori mugarik: diagnostikoak gaurkotasuna duen bitartean, gaurkotasuna izango du planak ere. Honako bi gertaerek baldintzatuko dute, beraz, denbora muga: (1) lehen adierazitako zentzuan diagnostikoaren azterketa oinarriak gainbeheratzea eta, ondorioz, diagnostikoak huts egitea; (2) gertaerak uste bezala jazotzea, diagnostikoak eta Plan Estrategikoaren aurreikuspenak zorionez gainditzea eta, ondorioz, gizarte mugimendu honek esku-hartze proiektua eguneratu beharra izatea.

Planak gaurkotasuna al duen eta baliagarria al den ebaluatzeko ezarritako bi termometroak nahikoa argiak dira. Tailer Nazionalari, Batzarrei eta elkarriko gainerako organoei dagokie diagnostikoaren ebaluazioa etengabe egitea eta, aipatu bi egoera horietakoren bat gertatuko balitz, hartu beharreko erabakiak hartzea.

### 6.3. Bilakaera positiboaren adierazleak

elkarriren azken azterketa agirietan bilakaera positiboaren adierazleak erabili izan dira, geure lanaren eta prozesuaren beraren bilakaera aztertzeko elementu gisa, beste batzuen artean. Diagnostiko honek eta Plan Estrategikoak ere izango dute dagokien seihileko bilakaera agiria, eta horietan aztertuko ditugu, zehatz-mehatz, adierazle horiek.

Agiri honetan, berriz, eta orokorrean hitz eginez, hauxe esan dezakegu: bakeranzko eta konponbideranzko bidea osatzen duten prozesuetan edo azpiprozesuetan printzipioak eta prozedurak ezartzearen ildotik egindako aurrerapauso oro bilakaera positiboaren adierazle izango da. Era berean, elkarrizketaren eta indarkeriarik ezaren aldeko esparru soziopolitikoak sekto-



re berrietarantz zabaltzea ere aurrera egitearen adierazle osagarria izango da.

## 7 egoeraren diagnostikoaren laburpena

Aldiz, indarkeria areagotzea edo jarraitzea, jarrera inmobilstak edo oztopatzaileak sendotzea eta elkarrizketa prozesuak murriztea prozesuaren bila-kaera negatiboaren edo prozesua gelditzearen adierazle izango dira.

—1998ko ekainetik 2000ko ekaina bitartean bi gertaera izan dira nagusi: Lizarrako Akordioa eta 14 hilabeteko su-etena. Euskal Herriak nabarmen egin zuen aurrera bakeranzko prozesuan. Eta honako ondorioak utzi zituen: elkarrizketaren aldeko konpromiso politiko handiagoa eta indarkeriaren edozein adierazpenen aurrean konpromiso sozial handiagoa.

—2000ko ekainan prozesuak krisi eta ziurgabetasun egoerarekin egiten du topo. ETaren indarkeria ekintzak daude alde batean; PPren oztupoak jarri behar etengabea bestean. Eta bien artean dago prozesua eta baita gizartea bera ere, ezinean.

—Krisia gainditzeko, bi zailtasun nagusi daude, laburbilduz: botere zentralaren ikuskera inmobilista, batetik, eta ETaren ikuskera inposatzailea, bestetik. Horra prozesuaren puntu ahula.

—Baina egungo egoerak izan ere badu blokeoa gainditzeko eta prozesuari bultzada emateko alternatiba, eta hona hemen bere puntu indartsua edo aukera: indarkeriarik ezaren eta elkarrizketaren aldeko esparru sozialari eta politikoari eustea, hau sustatzea eta zabaltzea.

—Esparru soziopolitiko eta plural horren lehentasuna honakoa da: bake-rako ekimenek azken bi urte hauetan izandako gabeziak zuzentzea; alegia, printzipiorik ez zehaztu izana eta edukiak prozeduren aurretik jarri izana zuzentzea. Eta nola gauzatu lehentasun hori berehalako etorkizunean? Bake-prozesuaren printzipioak eta prozedurak ardatz izango dituzten proposamenei eta akordioei buruzko elkarrizketak sustatuz, alderdien artean.





## 3 Elkarrire

zubigintzan 2.000 ordu

34 elkarri



# en misioa 2000. urtetik aurrera

Plan Estrategiko honetan enuntziatu berri bat erabiliko dugu: elkarriren misioa. Gizarte mugimendu honen zeregina hobeto finkatzeko aukeratu dugu aipatutako enuntziatua. Batetik, egoeraren diagnostikoa nahi dugu egin, eta xedeak, estrategiak, funtzioak edo jarduera planak finkatu; bestetik, gizarte mugimendu honen zeregin nagusi eta sintetikoa zein izango den mugatzea dugu helburu. Misioaren inguruko definizioan elementu jakin batzuk uztartu ditugu: gizarte mugimendu honen eginkizun nagusia, izatera, estrategia eta funtsezko rola, hain zuzen.

Dokumentu hau hainbat ataletan dago banatuta eta ondorengo helburuak ditu:

- Lehen atala: elkarriren misioa zehazteko erabili dugun metodologia azaltzea.
- Bigarren atala: elkarriren misioa zehaztea, egoeraren diagnostikoaren ondorioetatik abiatuta.
- Hirugarren atala: elkarriren misioa zehaztea, bere ibilbide historikoaren jarraikortasunetik abiatuta.
- Laugarren atala: elkarriren misioari buruzko ondorioak ateratzea.
- Bosgarren atala: elkarririk aldi berri honetan zein helburu izango dituen azaltzea.

## 1 zein metodo erabili dugun misioa zehazteko

elkarririk zazpi urte eta erdi bete dituen honetan, 2000. urtearen erdian eta XXI. mendearen atarian gaudela, azter dezagun zertan den egoera: Eraiki Proiektua bukatuta dago jadanik, 14 hilabeteko su-etena izan dugu, Espainian beste Gobernu bat eratu da eta datozen bi urte eta erdi hauetan ez da hauteskunderik izango. Beraz, datozen bi urteotarako proiektu estrategikoa finkatu beharko du elkarririk.

Lehenik eta behin, Euskal Herriko bake-prozesuan elkarririk zein misio dagokion erabaki behar dugu, une hauetako egoera kontuan hartuta. Gizarte mugimendu honen helburuak eta funtzioak zehaztea izango da bigarren urratsa. Baina oraindik ez diogu urrats horri helduko, lehen atal honetan beste zerbait aztertuko baitugu: zein esparrutan edo zein eremu filosofiko eta orokorrean burutuko duen elkarririk bere jarduna datozen bi urteotan.

Gure eszenatokia finkatzeko erabiliko dugun metodologiari dagokionez, bi alderdi nahi izan ditugu uztartu: batetik, aurrerago aipatutako diagnostikoa, batik bat gabezia eta premiei erreparatuz; bestetik, zazpi urte eta erdi-ko ibilbidearen ondoren elkarririk izan beharreko jarraikortasunari buruzko interpretazioa. Horixe da, azken finean, betidanik egin izan duguna.

## 2 Elkarriren misioa diagnostikoaren ondorioetatik abiatuta

Aurreko atalean egoerari buruzko nahiko diagnostiko zehatza egin dugu. Gure ohiko lan metodoari jarraiki, aukera onak edo abaguneak indartu eta prozesuaren azken esperientzietan sortutako gabeziak zuzenduko ditugu. Ez da beharrezkoa ideia bera behin eta berriro errepikatzea. Beraz, aipamen sintetiko batzuk baino ez ditugu egingo:

Egungo egoerak prozesua berrindartzeko eskaintzen dituen aukeren artean, bada abagune garrantzitsu bat: indarkeriarik ezaren eta elkarrizketaren aldeko diagnostikoarekin bat datorren esparru sozial eta politikoa mantentzea, sustatzea eta hedatzea.

Bakearen aldeko bidean azken biurtekoan sortutako gabeziak zuzentzea izango da aipatutako esparru soziopolitiko anitzaren lehentasuna. Bi izan dira gabezia nagusiak: printzipioak ez dira behar beste zehaztu eta edukiei prozedurei baino garrantzi handiagoa eman zaie. Ondorioz, epe laburrean, prozesuaren printzipio eta prozedurei buruzko proposamenak eta akordioak bideratuko ditugu.

## 3 Elkarriren misioa bere ibilbide historikoaren jarraikortasunetik abiatuta

elkarriren historia ez zegoen aurretiaz idatzita, ez da izan bideari ekin aurretik egindako aurreikuspen edo iragarpenen emaitza. Urratsez urrats egin dugu ibilbidea. Baina gure oinarriko printzipio filosofikoei tinko eutsi diegu beti. Hauexek dira, alegia: (1) elkarrizketa eta distentsioa, (2) akordioa eta (3) kontsulta soziala. Gainontzeko alorrak eraldatu eta garatu egin dira denboraren joanean, baina arazoak arazo, aipatutako oinarriek bere horretan iraun dute azken zazpi urteotan. Unean uneko urrats, zailtasun, gabezia, premia eta oztopoek hezurramitu dute elkarriren proiektua.

Azken urteotako ibilbidea aztertuz gero, bistakoa da aldi edo etapa jakin batzuek eman diotela koherentzia gure proiektuari. Hiru aldi bereiziko ditugu elkarriren historian.

### **3.1. Lehen etapa. Metodo orokorreko proposamenak: elkarrizketa. 1992ko abenduaren 20tik 1995eko bukaerara**

Lehen etapa hartan elkarrizketaren filosofia hedatzea izan genuen helburu, bai gatazka konpondu ahal izateko, bai indarkeria eta isolamenduari aurre egiteko. Lelo hau sortu zuen elkarririk: elkarrizketa eta distentsioa.

Oso emaitza onak lortu genituen. Duela zazpi urte ez bezala, orain gizartean eta politikagintzan gehiengoak onartzen du elkarrizketa dela gatazkek konpontzeko bide bakarra. Hori ez du, jakina, elkarririk soilik lortu, beste faktore batzuen ondorioa ere izan baita, baina jakinekoea da gizarte mugimendu honek zerikusi handia izan duela ikuspegi aldaketa horretan.

Dena den, hiru urte bizi haien ondoren, 1995eko bukaeran argi ikusi genuen metodo orokorra hedatzea, beharrezkoa izanagatik, ez zela aski gatazka konpontzeko. Prozesua zehaztu beharra zegoen, eta zertxobait haruntzago heldu.

### **3.2. Bigarren etapa. Eduki proposamenak: akordioa. 1996aren hasieratik 1997aren bukaerara**


Indar politiko guztien artean adostasun eszenatoki bideragarriak aurkitzea izan zen bigarren etaparen ardatza. Eduki jakin batzuei buruzko eztabaida politiko zuhurra sustatu genuen, bake-prozesua desblokeatu eta abian jartzeko aukera emango zuen akordioa lortu ahal izateko. Argi nahi genuen utzi gure asmoa ez zela elkarrizketaren aldeko aldarrikapen hutsa egitea, indar politikoen arteko gutxieneko akordioak lortzea baizik. Bost proposamen jarri genituen mahai gainean. Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarriari eta eskubide historikoei buruzko Izan Proposamena izan zen ezagunena, eta baita kontsentsurik handiena lortu zuena ere.

Aldi emankor hartan konponbideak hezuramaitzen hasi ginen, oso prozesu agerikoa izan ez arren. Lau ideia hartu genituen oinarritzat: (1) indarke-riaren arazoa konpondu gabeko elkarbizitza gatazka politiko bati lotuta dagoela, (2) ezinbestekoa dela elkarrizketan oinarritutako konponbideak bilatzea, inor ere baztertu gabe, (3) Euskal Herriko hiritarren borondate demokratikoa errespetatu egin behar dela, bai orokorrean bai bertako esparru guztietan, eta azkenik, (4) Euskal Herriko errealitate soziopolitikoaren eta lurralde errealitateen arteko loturak, eta era berean Estatuarekikoak, zehazteko bideak bilatu behar direla, betiere egungo egoeraren inguruko kontsentsua indartzeko moduan.

Helburu horietan guztietan aurrerapauso handiak eman genituen, baina beste zerbait falta zen. Bigarren etaparen bukaeran, ondorio jakin bat ateratu zuen elkarririk: aktore politikoek ez zutela behar adinako ausardia, borondate edo jarrera onik. Hitz batean, ez ziotela benetan heldu bake-prozesua bideratzeko eta konponbideak aurkitzeko lan konplexuari. Ezinbestekoa zen, beraz, beste zerbait egitea.

### **3.3. Hirugarren etapa. Jarrera proposamenak: lan eraikitzailea. 1997aren hasieratik 2000ren erdia aldera**

Bake-prozesu orok eskatzen duen jarrera izan da hirugarren etaparen ardatza. Etika politikoan oinarritutako proposamena egin dugu. Jarrera eraikitzaileak nahi izan ditugu sustatu lau irizpide kontuan hartuta: erraztea, elkarlanean aritzea, inor ez baztertea eta demokrazian sakontzea. Elkargune politikoak aurkitzea eta gizartean adiskidetze kultura indartzea izan ditugu helburu. Arazoak arazo, su-etenaren aldeko jarrera eta Lizarrako Akordioa izan dira ia etapa osoan zehar gure lanaren ardatzak.



Aurrerago aipatu ditugu hirugarren etaparen eduki nagusiak: elkarrizketa gehiago eta indarkeriarik eza gehiago. Ildo horretan, aurrerapauso nabarmenak eman ditugu. elkarririk erabili dituen kontzeptu nagusiak gatazkaren hiztegi politikoaren baitan daude jadanik. Dena den, blokeoa izan da berriro nagusi. Bidegurutzean gaude: batetik, ez dago atzerabueltarik, ez dago iraganeko estrategia hutsaletara itzultzerik; bestetik, etorkizuna iluna iruditzen zaigu.

Iritsi gara, azkenik, laugarren etaparen atarira. Gatazkaren inguruko prozesuak heldutasun handia lortu du eta, bestalde, elkarririk erabat burutu ditu jadanik metodo orokorrari, edukiei eta jarrereri buruzko proposamenak. Azkenik, elkarriren ibilbidearen jarraikortasunaren inguruko gogoetak sintesi etapa bati eman dio bidea. Metodoa, edukiak, jarrerak eta sintesiak. Izan ere, prozesuan aurrera egiteko, ezinbesteko deritzogu azken urteotan lortutako esperientziaren sintesi ordenatua egitea, hasieratik abiatuta. Zehaztasunen garaia heldu da, beraz.

Bakea edo beste edozein prozesu eraikitzeko, ezinbestekoa da esperientziaren sintesia egitea, hasieratik abiatu eta zehaztasunen azterketa ordenatua egitea. Hau da, eraikinaren oinarriak eta egiturak ezarri behar ditugu. Horrela, ondorengo taula egin dugu elkarririk hurrengo etapan izan beharreko misioa argi eta garbi finkatzeko asmoz: gizarte mugimendu honek etapaz etapa izandako bilakaera adierazi dugu eta, bestalde, prozesuak azken etapan izan dituen premiak eta gabeziak ere bildu ditugu.

elkarriren bilakaera etapaz etapa	Egoeraren diagnostikoa
1. etapa: <b>metodoari</b> buruzko proposamenak. •Elkarrizketaren defentsa eta proposamena. 2. etapa: <b>edukiei</b> buruzko proposamenak. •Akordioa lortzeko aukera teorikoak aztertzea. 3. etapa: <b>jarrereri</b> buruzko proposamenak. •Jarrera politiko eraikitzailea sustatzea. 4. etapa: <b>sintesi</b> proposamenak.	<b>Entsegua:</b> Lizarra. •Elkarrizketa eta indarkeriarik eza gehiago. <b>Akatsa:</b> bi gabezia. •Printzipioak ez dira ongi zehaztu. •Prozedurak eta edukiak nahastu egin dira. <b>Abagunea:</b> • <u>Elkarrizketaren eta indarkeriarik ezaren</u> aldeko esparrua. <b>Premiak:</b> •Printzipioak eta prozedurak.
<b>laugarren etapa</b> <b>sintesi proposamenak: printzipioak eta prozedurak indarkeriarik ezaren eta alderdien arteko elkarrizketaren alorrean</b>	

## 4 Elkarriren misioa: ondorioak

Orain arte aipatutakoak kontuan hartuta, ondorengoa izango litzateke elkarriren misioa hastear dagoen laugarren etapa honetan:

- Gizarte mugimendua den aldetik,
- lortutako esperientzia laburbilduta
- eta elkarrizketaren eta indarkeriarik ezaren esparru partekatutik abiatuta
- honakoa izango da elkarriren misioa hurrengo etapan  
bake-prozesuaren, konponbideen eta normalizazio politikoaren oinarriak ezartzea eta garatzen hastea

Zehatz mehatz,

- elkarrizketa anitzak sustatuko ditugu
- alderdien artean printzipio eta prozedurei buruzko akordioak lortu ahal izateko
- bakearen eraikuntzan eta elkarbizitza soziopolitiko normalizatuan sortu ohi diren prozesu guztietan.

Formulazio horrek lau atal nagusi ditu eta banan-banan azalduko ditugu, hobeto uler daitezzen.

#### 4.1. «Gizarte mugimendu den aldetik»

Gizarte mugimenduen oinarriko ezaugarriak definitu izan ditugu aurreko dokumentuetan, baina berriro ekarriko ditugu gogora. Gizarte mugimenduek hazia erein behar dute eta bideak erraztu, gizarte ekimenetik abiatuta bake-prozesuak eraikitzeke behar diren azpiegiturak sortu ahal izateko. Gure lanak zuhurra izan behar du, ez dugu gehiegi nabarmendu behar, bigarren mailakoak izan behar dugu protagonismoari dagokionez. Baina irmotasuna da gure ezaugarri bereizgarria, inoiz etsi gabe, aurrera egiten dugu beti eta gainontzeko gizarte eragileekin eta agente politikoekin elkarlanean aritzen saiatzen gara, ahalegin hori askotan agerikoa ez izan arren.

#### 4.2. «Elkarrizketaren eta bakearen esparru partekatutik abiatuta»

Prozesuaren oinarriak (printzipio eta prozedurak) ezarri ahal izateko, abiapuntu jakin bat aukeratu behar dugu lehenbizi. Elkarrizketaren eta indarkeriarik ezaren aldeko jarrera duten alderdi sozial, politiko eta sindikal guztien lankidetzat dugu, hain zuzen, aipatutako abiapuntua. Ez diogu deituko, ordea, hirugarren espazioa, alderdi batzuek ez baitute gogoko izen hori, batik bat ezker abertzaleak. Susmo txarrak eta interpretazio negatiboak eragiten ditu: konpetentzia fronte edo foroa dela edo, bestela, hirugarren bidea dela, konponbide edukiei dagokienez. Ez da eta ez du izan behar ez bata, ez bestea.

Dena den, aipatzekoa da gatazken konponbideen inguruko adituek izen hauek erabili ohi dituztela horrelako espazioentzat: hirugarren maila, hirugarren esparrua edo gatazken eszenatoki tripartitua. Adituen ustez, gatazken konponbidean heldutasuna lortu dela adierazten du espazio horrek. Eszenategian bi espazio baino ez badaude, oso zaila izaten da konponbideak aurkitzea eta gatazka kroniko bihurtzen da gehienetan. Hiru espazio sortuz gero, ordea, errazago irekitzen zaizkie ateak gatazken konponbideei.

Izenik gabeko espazio hori elkarrizketa eta negoziatorako zubia da. Printzipioak eta prozedurak ditu euskarri, eta ez edukiak. Sintesiaren eremua dugu, espazio ireki eta hedakorra, mugarik gabea. Espazio horretan daude potentzialki, gaur egun, bai ezker abertzalea, bai sozialismoa, eta bertan kokatuko dira etorkizunean beste indar politiko guztiak ere.



### 4.3. «Sintesia egin (...) eta printzipioak eta prozedurak finkatzea»

elkarrik bere ibilbidean lortutako esperientziaren sintesia egingo du lehenbizi eta printzipioak eta prozedurak zehatz-mehatz finkatuko ditu, gero. Zeregin horri ekin behar diogu, hasieratik abiatuta. Errealismoaren ordua iritsi da. Ahalik eta sintesirik praktikoena egin behar dugu metodo, eduki, proposamen, borondate edo jarreraren inguruan. Lehentasunak eta zehaztasuna hartuko ditugu beti aintzat: printzipioak eta prozedurak, hain zuzen. Prozesuaren oinarriak eta egiturak finkatzea da hizpide dugun teoria benetan gauzatzeko biderik zentzuzkoena. Printzipioak ditugu oinarri horiek eta egiturak, berriz, prozedurak.

### 4.4. «Prozesu guztiak»

elkarriren misioaren formulazioan nahita erabili dugu prozesu guztiak kontzeptua, horixe baita bakearen eraikuntzarako giltzarrietako bat. Argi eta garbi bereizi eta kudeatu behar ditugu prozesu guztiak, berriro ere nahaskerian erori gabe. Printzipio eta prozedura orokorrak finkatu behar ditugu prozesu osorako, baina kontuan izan behar da azpiprosesuak eta prozesu osagarriak ere sortuko direla. Beraz, ezinbestekoa da azpiprosesu eta prozesu osagarri guztien printzipioak eta prozedurak ere zehaztea, horien bidez sortuko diren konponbideak egoki eta era ordenatuan kudeatu ahal izateko.

### 4.5. «Alderdien arteko akordioa»

Alderdien arteko akordioak elkarlana eskatzen du, ezinbestez. Alferrikakoa da printzipio eta prozedurarik perfektuenak eskaintzea, gure iritzi berekoek baino ez badituzte onartzen. Prozesuak irekia eta konpartitua izan behar du, ez du inor baztertu behar, bide hori hartzeko borondatea duen oro onartu behar du eta, gutxinaka-gutxinaka, indar politiko eta sentibiltate guztien partaidetza lortzen saiatu. Printzipio eta prozedurak prozesuaren legeak eta arauak izango dira. Alderdi guztiek adostu eta onartu behar dituzte; bestela, ez dira baliagarriak izango.





# 4 esku-hartze proiektu

zubigintzan 2.000 ordu



# ua (2000ko ekainetik aurrera)

Ponentzia honen bidez, aurreko ponentzietan ateratako ondorioak zehaztu nahi ditugu. Lehen hiru ataletan ondorengo gaien laburpena egingo dugu: (1) Eraiki Proiektuaren gestio txostenarena (2) egoeraren diagnostikoarena eta (3) misioarena. Proposamenen atalean, berriz, honakoak izango ditugu aztergai: (4) helburuak, (5) estrategia, (6) funtzio nagusia eta jardueraren plan orokorra eta, azkenik, (7) funtzio espezifikoak eta jardueraren plan zehatzak.

## 1 Eraiki Proiektuari buruzko balantzearen laburpena

1. Eraiki Proiektuak oso emaitza onak lortu zituen egoeraren diagnostikolari eta proposamen estrategikoei zegokienez. Proiektu hori izan da, besteak beste, elkarriren lanaren ardatza eta orientabidea 1998ko ekainetik 2000ko ekainera bitartean.

2. Eraiki Proiektuan aurreikusitako ia jarduera guztiak burutzea lortu dugu. Gainera, ongi erantzun die euskal gatazkan azken bi urteotan izan diren gertakari garrantzitsuei. Dena den, prozesuaren premiek eraginda, hasieran aurreikusita ez zeuden ekimen ugari antolatu behar izan ditugu.

3. Ikuspegi kualitatiboari dagokionez, elkarriren lana serioa, eraikitzailea eta proposamen ugariren iturburua izan da. Ikuspegi kuantitatiboari dagokionez, gizarte mugimendu honek beste inoiz baino askoz ere jarduera gehiago gauzatu ditu.

4. Bada, ordea, autokritikarako arrazoirik ere, ekimen edo jarduera esparru batzuen emaitzak ez baitira behar bezain onak izan:

—Bakearen Aldeko Koordinakundearekiko lankidetzaz ez da behar adina garatu. Testuinguruak, errealitateak eta gizarteak berak ezinbestez eskatzen digute lankidetzaz handiagoa, zabalagoa eta eraginkorragoa lortzea.

—Jarduera gehiegi, eta sakabanatuegiak. Aldi batzuetan, batik bat 1999ko udaberrian, hainbat eta hainbat ekimen sortu ziren aldi berean esparru anitzetan eta, ondorioz, esku-hartzeek eta mezuek ez zuten bateratasun handirik izan.

—elkarriren Tailer Lokalik ez duten herriei ez diegu behar besteko arretarik eman antolamenduari dagokionez.

5. Ondorengoak dira, bestalde, emaitzarik onenak lortu dituzten jarduera esparruak:

—Dokumentuen eta proposamenen argitalpen eta banaketak. Azken bi urteotan 33 argitalpen kaleratu eta banatu ditugu, maila onekoak denak bai kalitatearen bai edukien aldetik.

—Eraikikazi kanpainari eta bestelako ekimenei esker, tailer lokalek jarduera diseinu argia eta zehatza izan dute.

—Zuzeneko harremanak, eta zuhurrak, izan ditugu alderdiekin, erakundeekin eta alor guztietako eragileekin. Esperientzia baliagarria izan da: batetik, elkarrizketa zirkularrak gauzatu ditugu; bestetik, analisiak, informazioa eta proposamenak trukatzeko aukera ere izan dugu.

—Finantzen alorrean gizarte mugimendu honen egoera gero eta hobea izan da azken bi urteotan, eta etorkizunean ere horrela jarraituko duela dirudi.

6. Gainontzeko lan esparruetan ere nahiko ongi bete dira aurreikuspenak.

7. Eraiki Proiektuaren ordez ezarriko dugun Plan Estrategikoari dagokionez, hiru ondorio nagusi aipatuko ditugu lehenbizi:

—Egoeraren diagnostikoa eta proposamen estrategikoaren edukiak egoki eta zehatzasun handiz finkatzen saiatu behar dugu.

—Bi irizpide izango ditugu beti kontuan jarduera programa zehatzak antolatzerakoan. Batetik, (1) esperientziak argi erakutsi digu zein jar-

duera diren egokienak elkarriren potentzialtasun eta motibazioentzat; beraz, jarduera horiek sustatzea komeni da. Bestetik, (2) metodo selektibo eta zehatzagoak erabili behar ditugu jarduera plan orokorrak aukatzeke.

—elkarriren antolamendu lokalari aurreko etapan baino arreta handiagoa eman behar zaio.

## 2 egoerari buruzko diagnostikoaren sintesia

—1998ko ekainetik 2000ko ekaina bitartean bi gertaera izan dira nagusi: Lizarrako Akordioa eta 14 hilabeteko su-etena. Euskal Herriak nabarmen egin zuen aurrera bakeranzko prozesuan. Eta honako ondorioak utzi zituen: elkarrizketaren aldeko konpromiso politiko handiagoa eta indarkeriaren edozein adierazpenen aurrean konpromiso sozial handiagoa.

—2000ko ekainan prozesuak krisi eta ziurgabetasun egoerarekin egiten du topo. ETAren indarkeria ekintzak daude alde batean; PPren oztopoak jarri behar etengabea bestean. Eta bien artean dago prozesua eta baita gizarte bera ere, ezinean.

—Krisia gainditzeko, bi zailtasun nagusi daude, laburbilduz: botere zentralaren ikuskera inobilista, batetik, eta ETAren ikuskera inposatzailea, bestetik. Horra prozesuaren puntu ahula.

—Baina egungo egoerak izan ere badu blokeoa gainditzeko eta prozesuari bultzada emateko alternatiba, eta hona hemen bere puntu indartsua edo aukera: indarkeriarik ezaren eta elkarrizketaren aldeko esparru sozialari eta politikoiari eustea, hau sustatzea eta zabaltzea.

—Esparru soziopolitiko eta plural horren lehentasuna honakoa da: bake-rako ekimenek azken bi urte hauetan izandako gabeziak zuzentzea; alegia, printzipiorik ez zehatzu izana eta edukiak prozeduren aurretik jarri izana zuzentzea. Eta nola gauzatu lehentasun hori berehalako etorkizunean? Bake-prozesuaren printzipioak eta prozedurak ardatz izango dituzten proposamenei eta akordioei buruzko elkarrizketak sustatuz, alderdien artean.

## 3 Elkarri 2000ko ekainetik aurrera izango duen misioaren laburpena

- Gizarte mugimendua den aldetik,
- lortutako esperientzia laburbilduta
- eta elkarrizketaren eta indarkeriarik ezaren esparru partekatutik abiatuta
- honakoa izango da elkarriren misioa hurrengo etapan

bake-prozesuaren, konponbideen eta normalizazio politikoaren oinarriak ezartzea eta garatzen hastea.

Zehatz mehatz,

- elkarrizketa anitzak sustatuko ditugu,
- alderdien artean printzipio eta prozedurei buruzko akordioak lortu ahal izateko
- bakearen eraikuntzan eta elkarbizitza soziopolitiko normalizatuan sortu ohi diren prozesu guztietan.



## 4 helburuak

Azken bi urteotako helburu orokor berberak izango ditugu, oraindik lortzeke baitaude, baina beste ezaugarri batzuk hartuko dituzte aurrerantzean. elkarriren misioa berri eta egokitu egingo dugu, baina helburu nagusiek bere horretan jarraituko dute beti.

### 4.1. Helburu orokorrak: hurbiltzea eta sortzea

—Heldutasuna da euskal gatazkak une hauetan duen ezaugarri nagusia. Beraz, lan eraikitzailea egin behar dugu gatazka heldutasun horretatik bake-prozesurantz eraman eta bideratzeko.

—Euskal gatazkan bake-prozesuaren oinarriak ezartzea (finkatu, ireki eta abiarazi).

### 4.2. Helburu zehatzak

Helburu orokorrek lotura estua dute bake eta konponbide prozesuaren azken xedearekin. Helburu zehatzek, berriz, elkarrik prozesuaren une bakoitzean egindako ekarpenekin dute zerikusia. Ondorengoak dira, une hauetan, gure helburu zehatzak:

Ekarpen zehatzak (guk geuk edo besteekin elkarlanean) egingo ditugu eta gainontzeko eragileen ekimenak ere sustatuko ditugu, hiru helburu hauek lortzeko asmoz:

4.2.1. Gizarte partaidetza interaktiboa, kritikoa eta eraikitzailea bultzatzea eta bideratzea.

4.2.2. Indarkeriarik ezaren eta guztion eta guztiontzako giza eskubideen alde egitea.

4.2.3. Alderdien arteko elkarrizketarako espazioak sortzea. Espazio horiek zabaldu egingo dira, arian-arian, eta printzipio eta prozedurei buruzko oinarrizko akordioak lortzea izango dute helburu. Arlo hauek adostu behar dira, gutxienez:

-gatazka politikoa konponduko duen prozesu alderdianitza eta alderdi politikoen arteko foroa.

-EAEren, Nafarroaren eta Iparraldearen arteko harremanak eta horiek guztiek prozesuan izan beharreko partaidetza mota.

-humanizazioa, batez ere sufrimenduak eta biktima guztiek bake-prozesuan izan beharreko tratamenduari dagokionez.

-espetxe-politika eta presoen eta senitartekoen eskubideak.

-aniztasunarekiko eta gizarte partaidetzarekiko errespetua. Gure gizartearen borondate demokratikoaren onarpena, bai orainaldirako bai etorkizunerako erabakietan.

## 5 estrategia

Estrategiaren definizioak lotura zuzena du aipatu berri diren helburu zehatzekin. Ondorengo irizpideekin harreman zuzena du:

### 5.1. Orientabide orokorra

Bi ekarpen orokor egin nahi ditu elkarrik bake-prozesuan: lehenbizi, oinarriak ezarri eta, gero, garatu. Bi izango dira prozesuaren oinarriak finkatzeko zutabe nagusiak: demokrazian sakontzea eta politikaren etikan sakontzea. Elkarrik politikaren etikari eta bake-prozesuari egin beharreko ekarpenei dagokienez, jarrera eraikitzaileak sustatzeko ahaleginetan azken bi urteotan lortutako esperientzia positibotik abiatuko gara. Aipatzekoa da jarrera hauek bultzatzen saiatu garena, besteak beste: erraztea, elkarlanean aritzea, ez baztertea...

### 5.2. Irizpide estrategikoak

5.2.1. Bazterketarik gabeko elkarrizketa eta indarkeriarik eza: bi kontzeptu horiek uztartuz ekingo diogu lanari. Horiek izango dira elkarriren ekimenen eta gainontzeko eragileekin batera bideratuko dituen ekintza guztien ardatzak.

5.2.2. Gizarte mugimenduei berez dagozkien jarduerak eta esku-hartzeak gauzatzea. Gizartearen ahots kritikoa gara eta, ondorioz, bi zeregin nagusi ditugu: (1) bake-prozesuan gizarte lehenetsuen alde egitea eta (2) prozesua erraztea. Azken helburu horretarako ezinbestekoa da ideiak, proposamenak eta azpiegiturak (aldamioak) sortzea.

5.2.3. Zeharkakotasuna eta bertikaltasuna: bi irizpide horiei jarraiki jardungo du elkarrik. Zeharkakotasuna ezinbestekoa da gizartean eta politikan dauden sentsibilitate guztiak hartzeko. Bertikaltasuna nahitaezkoa da gizartearen oinarria, goi-mailak eta tarteko espazio guztiak hartzeko. Kontuan izan behar da, gainera, bake-prozesuan ekarpenak egin ditzaketen agente guztien arteko lankidetzara eraikitzailea sustatzea dela, besteak beste, gizarte mugimendu honen asmoa.

5.2.4. Azken bi urteotako esperientziak argi erakutsi digu ageriko eta ezkutuko jarduerak egoki uztartu behar ditugula, gure lana benetan baliagarria izan dadin. Orain arte bezala jarraituko dugu, eta argi bereiziko dugu beti zein jarduera bideratu behar diren jendaurrean eta zeintzuk zuhur eta isilpean.

5.2.5. Elkarririk gehiago sendotzen saiatuko gara. Hiru alor hartuko ditugu kontuan: antolamendua eta operatibitatea, ekonomia eta gizarte mugimendu honetan parte hartzeko bide berriak bilatu eta zehaztea.

## 6 funtzio nagusia eta jarduera plan orokorra

Orain arte aipatutakoak kontuan hartuta finkatuko ditugu elkarririk 2000ko ekainetik aurrera izango dituen funtzio nagusiak eta, halaber, funtzio horiek jarduera planen bidez gauzatzeko moduak. Ondorengo irizpide metodologikoa izango da gure abiapuntua: funtzioak zehazterakoan oso selektiboak izango gara; funtzio gutxi, baina ongi aukeratuak. Gainera, eredu berbera erabiliko dugu jarduera plan guztietan. Eginahalak egingo ditugu gure lana ahalik eta eraginkorra izan dadin. Lehenik eta behin, beste guztiak barne hartuko dituen funtzio eta jarduera plan orokorra finkatuko dugu. Funtzio eta plan orokor horren bidez, irizpide argi eta bateratuak izango ditugu ekimen guztietan.

### 6.1. Funtzio nagusia

Alderdien arteko elkarrizketa bultzatu eta indartzean datza elkarriren funtzio orokorra. Elkarrizketa sustatzea dugu lehen funtzioa eta bigarrena, berriz, elkarrizketa hori metodologiaren eta emankortasunaren ikuspegietatik bideratzea. elkarririk bi baldintza ezarriko ditu: (1) lehenik eta behin, printzipio eta prozedurei buruzko akordioak lortzea eta, ondoren, (2) konponbideak aurkitzea.

### 6.2. Jarduera plan orokorra

elkarririk elkarrizketaren maratonia jarriko du abian. Alderdien artean 2.000 orduko elkarrizketak antolatzeke eta gauzatzeko konpromisoa hartu du gizarte mugimendu honek. Maratoiak ez du etenik izango. Berez ez du mugaegunik, baina 2001. urteko amaiera izango da, gutxi gora-behera, bukaera data. Gure ustez, bake-prozesuak derrigorrez eskatzen ditu ordu luzetako elkarrizketak, eta funtsezkoa da, baita, ahalik eta konbinaziorik anitz eta ugarienak egitea ere. Horretarako sortu dugu, hain zuzen, gure jarduera plan orokorra.

2.000 orduko elkarrizketak 500-700 bat lansai izango dira. Mota guztiek balio dute: Euskal Herria bere osotasunean hartuta bultzatzen diren elkarrizketak; Nafarrora, EAera eta Iparraldera soilik mugatzen direnak edo esparru horien eta Espainiako eta Frantziako erakundeen artean sortzen direnak ere. Maila guztietako elkarrizketak izango dira baliagarriak: alderdi politikoen zuzendaritzen artekoak zein gizartearen oinarrikoak, herri, auzo edo Udaletakoak.

Alderdi politiko eta eragile guztiek izango dute lekua elkarrizketetan, eta konbinazio guztiak izango dira baliagarriak. Euren burua euskalduntzat dutenen arteko elkarrizketak, euren burua espainoltzat dutenen artekoak, batzuen eta besteen artekoak... Esan bezala, ahalik eta aniztasunik handiena lortu behar dugu. Elkarrizketa mota guztiak dira onak: jendaurrekoak nahiz ezkutukoak, tarteka agerikoak eta tarteka ezkutukoak, gizarte mugimendu honek antolatutakoak edo gure partaidetza eta babesia izan dezaketenen bestelako ekimenen ondoriozkoak. Ordu luzeak emango ditugu hitz egiten, azkenean, gure herriari eta etorkizunari buruzko narrazio berria lortu ahal izateko. Horixe izango da gure ahalegina eta gure proiektua.

Bestalde, hiru funtzio espezifiko izango ditu elkarririk, eta hurrengo atalean azalduko ditugu denak: (1) gizarte partaidetza sustatzea, (2) indarkeriarik ezaren eta denen eta denentzako giza eskubideen (norbanakoen zein kolektiboen) alde egitea eta (3) elkarrizketarako proposamenak sortzea. Hamar jarduera plan antolatu ditugu eta aipatutako hiru funtzioen baitan daude guztiak.

## 7 funtzio espezifikoak eta jarduera planak

Funtzio espezifikoak	Jarduera planak
----------------------	-----------------

Funtzio espezifikoak	Jarduera planak
----------------------	-----------------



Funtzio espezifikoak	Jarduera planak

zubigintzan 2.000 ordu

50 elkarri

#### 7.4. Jarduera planetarako irizpide osagarriak

7.4.1. Aurreko orrialdeetako tauletan jarduera planen deskribapen orokorra egin dugu. Gizarte mugimendu honek sei hileko plangintza zehatzak burutuko ditu aipatutako jarduera planak antolatzeko.

7.4.2. EPO-PIG (Esku-hartze Programa Orokorrak) sistemaren bidez lortutako esperientzia bikaina izan dugu abiapuntu. Dena den, Plan Estrategikoari beste izen bat ematea erabaki dugu, argiagoa eta zehatzagoa. Aurrerantzean, SHJP (Sei hileko Jarduera Planak) deituko diegu. elkarriren Plan Estrategikoak barne hartuko dituen jarduera planak zehaztea, garatzea eta finkatzea izango da SHJPen helburua.

7.4.3. Ondorengoak izango dira, gutxi gorabehera, kasuan kasuko SHJPak Tailer Lokaletan aurkezteko epeak:

- 1. SHJP: 2000ko irailaren 1. hamabostaldia
- 2. SHJP: 2001eko otsailaren 1. hamabostaldia
- Ebaluazio orokorra: 2001eko irailaren 1. hamabostaldia

7.4.4. 2001. urtearen amaiera izango da, gutxi gorabehera, 2.000 orduko elkarrizketetarako muga. 18 edo 20 hilabete inguruko epea dugu, beraz. Elkarrizketaren alorrean burutuko diren ekimen guztiak txosten bakar batean bilduko ditugu eta, prozesua bukatutakoan, balorazioa egingo dugu. Ekimen guztiak hartuko ditugu kontuan: elkarrirenak, beste talde batzuekin elkarlanean bideratutakoak edo gure gizarte mugimenduaren partaidetzaz gauzatutakoak. Antolaketa arduradunek egingo dute aipatutako ekimenen jarraipena.

7.4.5. «2.000 orduko elkarrizketa alderdien artean» izeneko ekimenak gure zeregin guztiak barne hartu eta bateratuko ditu. Bestalde, lelo horren bidez, gizarteari argi eta erraz ulertzeko moduan adieraziko diogu zein den elkarriren misio eta proiektuaren funtsa.

7.4.6. Prozesu horren guztiaren ebaluazioan helburu kualitatiboari erreparatuko diogu nagusiki, eta ez kuantitatiboari. Izan ere, gure ustez, ordu luzetako elkarrizketa emankor eta metodologikoak oso baliagarriak izango dira helburu kualitatiboak lortzeko.



5 ponent

zubigintzan 2.000 ordu

52 elkarri



zia eta erabaki osagarriak



# Nafarroan Plan Estrategikoari buruzko ponentzia

## 1 aurkezpena

elkarriren Plan Estrategikoa, analisiari eta esku-hartzeari dagokionez, EAEn zein Nafarroan aplikatu ahal izateko idatzi da. Gatazken konponbiderako estrategia bat sinesgarria eta bideragarria izan dadin, nahitaezkoa da antzeko egoeretarako balioagarria eta erabilgarria izatea indarren korrelazioa desberdina edo alderantzizkoa baldin bada ere (kasu honetan, zatiketa politiko handiko gizartea eta motibazio politikoko indarkeria pairatzen duena). Konponbiderako eskema edonork gobernatuta ere balioagarria izan behar du. Gehiengoarentzat eta gutxiengoarentzat balioagarria izan behar du.

Abiapuntu hau eta Nafarroako bereiztasuna kontuan hartuz, bidezkotzat jo dugu herrialde eta erkidego honetan elkarriren esku-hartzea lotzeko ponentzia berezi bat sartzea, gizarte mugimendu honen jarduera osatzeko.

## 2 diagnostikoa: aurretiko dilema

Plan Estrategiko honetako prozesuaren egoera-diagnostikoa guztiz balioagarria da Nafarroarentzat. Baina gainera, beste kontu bat dago, nolabait aurrekoa dena. Prozesua bera eta lurralde honen barruko zein kanpoko errealitate soziopolitikoak ulertzeko bi modu antagonikoen arteko aurkakotasuna, eta hauetatik eratortzen diren diskurtso, egitasmo eta jarduera politiko paraleloak, eta dirudienez, etorkizun hurbilean topagunerik ez dutenak.

Bakoitzak duen pisua berdina ez bada ere, eskematikoki alde batean badaude pentsatzen dutenak Nafarroa «Euskal Herriko herrialde bat gehiago besterik ez da, desberdintasun nabarmenik ez duena EAEko edo Iparraldeko beste herrialdeekiko prozesuaren egoerari eta aurreikuspeni dagokionez» eta badaude pentsatzen dutenak «euskal gatazkak eta bake-prozesuak ez dute Nafarroarekin zer ikusirik, bizilagunen arazo bat da eta zenbaitek modu ezkutu eta maltzurrian arazo hori inportatzen saiatzen dira Nafarroa proiektu politiko anexionista batean murgiltzeko». Lehenengoentzat, «Madril» da Nafarroa banatu eta urruntzen duena. Gutxietsi egiten dute indar soziopolitikoen korrelazioa eta ez dute kontuan hartzen ibilbide historikoa eta bere instituzionalizazio eta eraketa politikoa duen autonomia erkidego baten errealitateak arautzeko duen gaitasuna. Bigarrenek, beren biztanlegoaren zati bat ikusiko ez balute bezala egiten dute. Zati hori gutxiengoak osatzen badu ere zati esanguratsua da eta elkarbizitza markotik baztertua sentitzen da. Haientzat esistitzen den gatazka politiko bakarra kanpoko meatxu kolonialista da. Aurkako estrategiak dira -homogeneizazioa eta absentismoa aurrez aurre- eta bi lemapean laburbil daitezke: «Nafarroa Euskal Herriko eraikuntza nazionalerako motorra eta ardatza» eta honen aurkakoa «ETAK hiltzeari utz diezaiola eta Nafarroa bakean utz dezatela».

Lekuren batean bereziki kaltegarria eta okerragorako izan bada «bake-prozesuaren» eta «prozesu soberanistaren» arteko nahasketa eta, bereziki, *printzipioen zehaztasun falta eta edukiak prozeduren aurretik jartzea* (ikus 2. ponentzia: egoeraren diagnostikoa) leku hau Nafarroa da. Ikuspegi honek Nafarroako gehiengo sozial eta politikoa kanpoan uzten du, aukera ez abertzaleak gehiengo garbi bat osatzen baitute, hauteskunderen emaitzen

arabera hiru laurden baino gehiago. Urrundu egin ditu, desmotibatu eta errezeloak eta mesfidantza sortu izan du. Sektore garrantzitsuek prozesua arrisku bat bezala ikusi dute, elkarbizitzaren markoa hobetzeko aukera bat bezala ikusi beharrean. Ziurraski, honek guztiak harremana izango du gaur egun elkarbizitzaren oinarriko gaiekin dagoen ezohiko polarizazioarekin: linguistika eta hezkuntza, sinboloak, komunikabide publikoen misioa, bizilagunekin harreman instituzionalak, etab.

Laburbilduz, Nafarroan aurretiko dilema bat dago lurralde eta erkidego honek bake-prozesuan parte hartu behar al duen eta nola egin behar duen gaiaren inguruan. Aurreiritziengatik, segurtasun faltagatik edo gibel-asmoak egon daitezkelaren beldurragatik prozesutik kanpo gelditzeko arriskua dago. Diagnostiko labur honetatik ondorioztatzen da bake-prozesua Nafarroan, ulergarriak, bateragarriak eta egokiak diren oinarri berrietan berrindartu behar dela gizartearen gehiengoarentzat, eta indar politiko zein sozial guztientzat, jakina, baita gehiengoarentzat ere.

### 3 Nafarroan Elkarriren jardueraren balantzea

elkarrik akatsak izan ditzazke, baina ez dago hauen artean testimonialismorako joerarik, ezta egoera desberdinetan estrategia modu mimetikoan aplikatzeko joerarik ere. Gizarte mugimendu hau Nafarroan lanean aritu da iritzi-publikoaren gehiengoarekin eta indar sozial eta politiko erabakiorretan eragina izateko asmoarekin.

1994ko ekainan, duela sei urte, jaio eta 18 hilabetera, gizarte mugimendu honek oinarriak sendotu eta lurralde honetan dinamika propio bati egin zion lekua. Hasierako ezartze etaparen ondoren, eta euskal gatazkak Nafarroan zuen «izate berezia» ikusirik, elkarrik aldizkako esku-hartze propioa eta osagarria jorratu izan du: 94ean Nafarroari buruzko ezohiko batzarra; Nafarroako etorkizuneko eszenatokiei buruzko kanpaina, Nafarroako etorkizunari buruzko Topaketak, biak 95ean; 96ean Nafarroa eta EAEn harremanen inguruko mobilizazioa; 97an ikerketa soziologikoarekin batera herri-kontsultaren aldeko ekimen legegilea.

Honi guztiari, Eraiki Proiektuaren barruan, bi ekimen nagusik jarraitu diote: (1) «bake-prozesua Nafarroan» argitalpenaren edizioa, eta honi lotuta egin ziren aurkezpen publikoa, hitzaldiak eta izaera informatiboa zuten kale-irteerak; (2) «Nafarroan bake-prozesuaren aldeko» manifestua herrialdeko 174 pertsona esanguratsuk sinatua, aniztasun nabarmeneko, eta honi lotutako ekimenak: mahainguruak, hitzaldiak eta kale-irteera informatiboak.

Nafarroan elkarrik garatu duen dinamika paralelo eta osagarria esku-hartze orokorra Nafarroako esparrura lotutako ekimen bereziekin dibertsifikatu eta osatu nahi izan du. Lan-ildo honen balantzea positibotzat har daiteke, bai eskainitako lan eta denboran zein emaitzetan. Aldi berean, orientabide argia da etorkizun hurbilerako.

### 4 Elkarriren helburuak Nafarroan

Plan Estrategiko berria indarrean egongo den eperako, helburu orokorrez gain, gizarte mugimendu honek hurrengo helburuak txertatzen ditu bereziki Nafarroari begira.

—Nafarroak bake eta konponbide prozesuan parte hartzeko, bere modura eta bere lehentasunen arabera egiteko duen eskubidea aldarrikatzea eta gauzatzea.



—Nafarroan indarkeriarik eza eta bazterketarik gabeko elkarriketaren aldeko espazio soziala eta politikoa sendotu, indartu, garatu eta dinamizatu.

—«Lurraldetasuna»ren inguruan dagoen eztabaida Nafarroako gehiengo sozial eta politikoa ulertu eta konpartitu ditzakeen terminoetan berformulatzen lagundu.

## 5 Elkarriren jarduera-irizpide zehatzak Nafarroan eta irizpide orokorrekiko osagarriak

### 5.1. Orokorrean pentsatu, lokal mailan ekin

Printzipio unibertsal honek aplikazio zuzena du gure kasuan. Jakina, euskal gatazka eta bake-prozesua bat dira, baina bere zeinuak, egoerak eta konponbideak, ez dira, eta seguruenik ere ez dira izango berdinak Hernanin, Pitillasen edo Angleten. Prozesu honek eszenategi bereiztuak ditu. Mimetismoa, itzulpenik gabeko inportazioa eta zentralismo kontzeptuala ez dira aholkulari onak. Honek esan nahi du bakearen aldeko lana tokian tokiko baldintza soziologiko eta koordenada soziopolitikoetara egokitzea.

### 5.2. Gehiengo sozialaren pertzepzioarekin bat egin

Aurrekotik eratortzen den irizpidea da. Biztanlegoaren gehiengoaren planteamendu, jarrera, lenguaia, estilo eta moduekin bat egin ahal izateko jarrera irekia edukitzea eskatzen du. Jarrera antagonikoen artean «Nafarroa, motorra,...» eta «Nafarroa bakean utz dezatela» bi ardatzen artean kokatzen den gizartearen gehiengo bat dago Nafarroan: (1) bake-prozesua hobetzeko aukera propio bezala sentitzen du; (2) EAerekin harreman instituzional iraunkor berri baten aldekoa da, dauden lotura historiko, kultural, ekonomiko eta sozialetatik abiatuta, mankomunitate librearen printzipioan oinarrituz, hau da, indar, egitasmo, instituzio eta baliabideak auzokidetasun kooperatiborako interes konpartitua duten helburuetan borondatez elkarturik.

### 5.3. Nafarroako erabaki markoa

Kontzientzia eta identitate propioa duten milioi erdi bat biztaley ez dute asumitzen euren etorkizuna goi-mailako marko batean erabakitzea. Etorkizuna libreki erabakitzeko eskubideak marko hori errespetatzea esan nahi du baita ere, hala nola, erabaki formula konkurrente eta aldiberekoetan berritzea.

## 6 etorkizunari begira Elkarriren jarduera Nafarroan

Bere filosofia «Nafarroa prozesura hurbildu eta prozesua Nafarrora hurbildu» esaldian laburtzen da. Bere arrazonamendua oinarritzkoa da: Nafarroa arazoaren objektua izan da (euskal gatazka). Ondorioz, konponbidearen subjektua izateko eskubide osoa du (bake-prozesua).

elkarriren Plan Estrategikoa Nafarroan aplikatzeko orduan modu iraunkorrean ikuspegi propioa izango du. Gainera, bake-prozesua Nafarroan lan-ildo bat izango da H jarduera planaren barruan –Tailer Nazionalaren jarduera ardatz nagusia– lan egonkor eta ekimen puntual nabarmenen bidez.

Datorren epe honetarako, indarkeriarik eza eta bazterketarik gabeko elkarriketaren aldeko espazioaren mobilizazioa garrantzi berezia izango du, esistitzen den errealtate baten espresio bezala, bere presentzia publikoa eta pisu erreala berrerekatzeko.

# Finantzaketari buruzko ponentzia

## 1 1998ko ekainetik 2000ko ekainerarteko ebaluazioa

PIG-EPOaren (Esku-hartze Programa Orokorraren) garapenean, 1998ko irailan indarrean jarria, finantzaketa arloan helburu batzuk finkatu ziren, eta hauek bete diren ala ez aztertuko dugu:

- Epe honetarako Eraiki Proiektuan aurreikusi ziren programa edo ekimen desberdinen bideragarritasun ekonomikoa bermatu da. Gainera, koiunturaren ondorioz bultzatutako zenbait kanpainen aurre egin zaie ekonomikoki.
- Zorra etengabe txikitzen joateko perspektibaz egin da lana, epe honetan zorra 12 milioitan txikitzea lortu delarik.
- Epe honen hasieran genituen finantziazio iturriak mantentzen eta sendotzen saiatu gara. Helburu hau ekimen osagarriekin (Finantzaketa Programa Osagarria) betetzea lortu dugu, bereziki arte munduarekin zerikusia izan dutenetan. Aldiz, pisu gehien duen hileroko diru-emailen iturrian helburua ez da bete. Kapitulu honetan beherako joera txiki bat izan da.
- Egiturazko gastuak eta inbertsioak une bakoitzeko aukeretara lotzeko lan egin da. Irizpide hau modu eraginkorrean aplikatu da epe honetan.

Laburbilduz, bi urte hauetan elkarrik PIG-EPOen aurreikusitako programa gehienak bete ditu horretarako beharrezkoa zuen finantziazio minimoa lortuz eta epe honen amaieran egoera ekonomiko osasuntsuagoa izanik.

## 2 ziklo berrirako helburuak eta irizpideak


Datorren eperako jarraipen politika bat aplikatzea proposatzen da, irizpidetan zein landu beharreko helburuetan. Azken bi urte hauetan aplikatutako estrategia baliogarria suertatu da elkarriren lana bermatzeko eta gainera, modu jarraian mugimendu honen egoera ekonomiko-finantzieroen hobekuntza ekarri du.

### 2.1. Helburuak

- elkarriren esku-hartzea eta baliabide ekonomikoak bata besteari egokitu.
- Gaur egungo finantzaketa iturriak indartu, proiektu berriekin osatuz, lehentasuna esperientzia dugun eremuei emanez (arte mundua, e.a.).
- elkarriko kontuen kudeaketa herstua eta eraginkorra mantendu.
- Epe berri honetarako aurreikusten diren proiektu eta ekimen desberdinen, eta puntualki sor daitezkeen beste kanpainen, bideragarritasuna bermatu.
- Zorra txikitzen joan etengabe.

### 2.2. Irizpideak

- Urteroko aurrekontuak betetzeko lan egin, hauek lantzeko orduan parte-hartzea bultzatuz.
- Unean uneko aukeretara lotu egiturazko gastuak eta inbertsioak.



- Arrazoizko oreka bat mantendu ohiko diru-sarrera eta gastuen artean. Betiere, lan arloan eta beste arloetan sor daitezkeen behar errealei erantzun egokia emanez.

- Diru-emaielen sarrerak modu esanguratsuan indartzeko ekimenak garatu.

### 3 jarduera planak

2000. urterako helburu zehatzak hurrengoak dira:

- Indarrean dagoen aurrekontua bete aurreikuspenen arabera.
- 2000ko bigarren seihilekoan 2001 urterako aurrekontuak idatzi parte-hartzea bultzatuz.
- 2000. urtean zehar %20aren inguruan zorra txikitu.
- Lehen seihilekoan diru-emaike berriak lortzeko kanpaina handi bat garatu.
- «30x30x30 Liburua - Errealitatea, itxaropena» proiektu artistikoa garatu eta burutu. Proiektu hau maila guztietan 2000. urterako finantzaketa osagarriaren ardatz nagusia izanik.

# Antolaketari buruzko ponentzia

## 1 1998ko ekainetik 2000ko ekainerarteko ebaluazioa

### 1.1. Mugimenduaren egitura

Antolaketako programak misio nagusi bezala hurrengoaren zuen: giza eta antolaketa taldeak prest izatea eta etengabe hobetzea. Antolaketa egiturari eustea, berriztatzea, indartzea eta hedatzea alde batetik; eta beste alde batetik, berriz, gizarte mugimendu honekin lan egiteko formula berriak erraztea.

Bi urteren ondoren, desmobilizaziorako eta indibidualismorako joera orokor eta gizartearen partehartzean eman diren aldaketak kontuan hartuz, helburu hauek nahiko bete direla esan genezake. Kanpaina guztiak egin ahal izan ditugu ongi antolatutako giza talde aktibo eta zabal bat egon delako atzean. Tailer Lokalen sarea mantendu egin da, betetera konpromisoa berritzea ahalbidetu duten talde eta laguntzaile berriak sortuz.

elkarrik gaur egun Tailer Lokal eta laguntzaileen sare bat du Euskal Herriko ehun herri, auzo eta unibertsitatetan. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako hiriburu eta eskualde-buru guztiak betetzen ditu. Tailer Lokalak ditu baita Madril,artzelona eta Bruselaren ere.

Azkenik, hilero dirua ematen duten 3.000 diru-emaitzen sarea egonkor mantendu da egoera latzenetan ere.

Honengatik guztiarengatik, elkarri erreferentzi bat dela adieraz dezakegu Euskal Herriko gizarte eragile antolatu, aktibo eta jende ugari biltzen duenetakoa delako.

### 1.2. Partehartze formak

Tailer Lokalak, Herrialde Batzarrak, Topaleta Nazionalak, TNl eta partehartze beste organuek ekimen maila altua mantendu dute Eraiki Proiektua indarrean egon den bi urte hauetan.

Aldi berean, pertsona eta talde berrietara mugimendua zabaltzeko erronkari aurre egin diogu, ohiko egitura hobetu eta berritu nahiean. Hurrengo aurrerapausoak azpimarra ditzakegu:

- Tailer Lokalek praktikan elkarriren laguntzaileen figura sortu dute. Arrazoi desberdinengatik modu erregularrean Tailerretan parte hartzen ez duten pertsonak dira, baina elkarrirekin identifikatu eta puntualki edo arlo espezializatuetan gurekin lan egiten dute. Pertsona hauei esker Tailer Lokalek eragin zirkulua zabaldu dute.
- Aldi berean, TNlaren barruan partehartze forma hauei eta beste batzuei buruzko eztabaida egin da. Eztabaida honen emaitzen ondorioak aurkeztuko dira eztabaidarako.
- Barne komunikaziorako mekanismo berri bat eratu da, Tailerren Koordinazio Organua. Bi hilabetean behin biltzen ditu Tailerretako arduradunak eta Koordinazio Nagusia. Neurri honekin kideen eta TNlaren arteko kontaktua areagotu nahi da.



## 2 helburuak

Mugimenduaren erradiografia hau egin ondoren, Plan Estrategiko berri-rako helburuak eta irizpideak finkatu behar ditugu. Esku-hartzearen ildo nagusia gaur eguneko antolaketa sarea mantentzea eta hobetzea eta, elkarriri laguntzeko moduak kualitatiboki eta kuantitatiboki zabaltzea izan daiteke.

### 2.1. Helburu orokorrak

Programa honetako bi helburu orokorrak mantenduko ditugu duten izaera iraunkorrenengatik:

- «•Mugimendu honetako giza eta antolaketa taldeak prest izatea eta etengabe hobetzea.
- elkarriren antolaketa egiturari eustea, berriztatzea, indartzea eta hedatzea.»

Erronka berrien eztabaidari dagokiona eguneratzen dugu:

- Gizarte joera eta izaera berriei egokitzen zaizkien laguntzarako eta partehartzerako mekanismo berriak praktikan jarri.

### 2.2. Helburu zehatzak

- Kide eta laguntzaileen errolda eguneratu.
- Tailer eta pertsona laguntzaileen sarea hedatu bi proiektuen bidez: hedapen plana eta «elkarrin Partehartze Forma Berrien Proposamena».
- Interneten lan-ildo berezi bat garatu.
- Lan-taldearen egitura Plan Estrategiko berrira egokitu.

## 3 jarduera irizpideak

- Garatuko ditugun ekimenak gure egituraren izaera eta gaitasunetara egokitu behar dira. Horretarako kanpainak ahalik eta gehien zehaztuko dira helburuetan, mezuetan, egutegian eta gizartean izango duten eraginean.
- Parte-hartze forma berriak praktikara eramateko elkarriri lagundu nahi dioten pertsona guztietara eta hauen egoerara malgutasun eta egokitze esfortzu berezi bat egin beharko du mugimenduak.
- Mugimenduaren egitura mantentzeko eta hobetzeko barne komunikaziorako bitartekoak hobetzen jarraitzea eskatzen du.
- 2000. urtea amaitu aurretik elkarrin parte-hartze forma berriei buruzko, eta antolaketa nola egokitu jasoko duen proiektu bat aurkeztuko da.

# Bakearen Aldeko Koordinakundea eta Elkarriren arteko harremanetarako erabakia

## 1 sarrera

Gatazka eta indarkeria egoeratik behin-betiko bake eta konponbide prozesu baterako trantsizioak zailtasun, kontraesan eta oztopo garrantzitsuak gainditu behar ditu. Azken bi urteak esandakoaren adibide garbia dira. Ibilbide konplexu honek, besteak beste, azken epe honetan indar, argitasun eta eragin handiagoz adierazitakoa baino gizarte bultzada indartsuagoa behar du.

Gizartearen parte-hartzea eta bultzada berma nahikoa ez bada ere, nahi-taezko faktorea da. Gure herriak bizi duen une historikoaren garrantzi handiak eta indarkeriarik eza eta elkarrizketaren gizarte borondatea entzuna eta errespetatua izateko beharra, gizarte ekimen indartsu bat –aniztasun zabalekoa eta agenda politikoan lehentasunak finkatzeko gaitasuna izango lukeena– artikulatzea eskatzen dute.

Azken bi urteotan Bakearen Aldeko Koordinakundeak eta elkarririk ekimen desberdinak jorratu dituzte elkarrekin. Esperientzia honen balorazioa ikuspegi orokor batetik positiboa da, baina izan dituen ondorio, emaitza eta eraginaren ikuspegitik, ez da nahikoa izan. Gizarteak, prozesuak eta bakeaurreko une historikoak, erakunde bakoitzari konpromiso eta eskuzabaltasun handiagoa eskatzen diote, interes orokorra noberaren interesaren aurretik jartzea eta oraina zein etorkizunari begira ausardia gehiagoz aritzea.

Honengatik guztiarengatik, elkarriren Batzar Orokorrek hurrengo erabakiak hartuko ditu.

## 2 erabakiak

1. Bakearen Aldeko Koordinakundeari bi erakundeen arteko hurbilketa eta topagune prozesu batean sakontzea proposatu. Helburua, gutxienez, elkar-lana eta batura iraunkorra eta egonkorra izango litzateke.

2. Prozesu honi ekiteko, elkarriren proposamena hurrengo lau puntutan oinarritzen da:

—Indarkeriarik eza eta guztien eta guztientzako giza eskubideak defendatzea eta sustatzea.

—Gure gizarteak konpontzeke dauzkan elkarbizitza arazo politikoaren konponbiderako tresna demokratiko bezala elkarrizketa proposatzea, bultzatzea eta laguntzea.

—Aniztasuna, pazifikoki eta politikoki aldarrikatutako ideia guztien legitimitatea, eta gure gizartearen borondate demokratikoaren oraina zein etorkizunari buruzko adierazpenen errespetua defendatzea eta bultzatzea.

—Bakearen eraikuntzan partehartze interaktiboa, kritikoa eta adiskidetzaren aldekoa bultzatu.

3. Bakearen Aldeko Koordinakundeak proposamen hau kontuan hartuko balu, elkarririk bi erakundeen arteko lan-metodo proposamen bat iradokiko luke, elkarriko Tailer Nazionaleko eta Bakearen Aldeko Koordinakundeko kideez osatutako batzorde misto batek dinamiza dezan.



# Estatuan Elkarriren jarduerari buruzko ponentzia

Gizartearen oinarrian jarduera ildo baten garapena erraztu nahiko lukeen Estatutako proposamena da honako hau. Honek esan nahi du Estatu mailan dagoen egoerarekin ez konformatzea. Era berean, baita lehen pertsonan gogoeta egitea ahalmen propioetan gertaeren nondik-norakoetan eragina edukitzeko.

## 1 egoeraren diagnostikoa

1. Estatuan gailentzen den diskurtso politikoa ETaren indarkeria arbuiatzea da. Balorazio honek beste balorazio guztiak totalizatu eta jerarkizatu egiten ditu. Arbuio honetatik demokraziaren ikuspegi zehatz bat ematen da non *demokraziak* esan nahi duen: ETaren indarkeria arbuiatzea; orokorrean nazionalismoa deskalifikatu eta zehazki euskal nazionalismoa; egungo marko juridiko-politikoa onartu, eta hain zuzen ere, Estatu espainolean lurralde antolamenduaren forma, muga «demokratiko» gisa. Demokrazia prozeduren errespetua bezala ulertzen da baita ere: hauteskundeak, gehiengoaren errespetua, alderdi politikoen ordezkaritza...

elkarrik proposatzen duen prozesurako mezuetan ezinbestekoa da azpimarratzea: (1) demokraziak suposatzen duen topagunea (balore «abstrakto» gisa); (2) indarkeria gaitzeztea; (3) demokraziaren prozedura dimentsioa azpimarratzea eta bultzatzea.

2. Estatuan prozesu elkarrizketatu baten aldeko sentsibilitate «esnak» daude, batik bat gizarte erakundeen eremuan. Baina sentsibilitate hauek elkarrizketaren aldeko espazio publikorik, iritzi eta ekimen espaziorik ez egoteari aurre egin beharrean aukitzen dira. Hala ere, gai desberdinen inguruan Estatu osoko gizarte erakundeen arteko koordinazio eta elkarlanerako sareak daude. Gauza da ikustea ea posible den Estatuan ere bake-prozesu demokratiko baten aldeko sentsibilitateak artikulatzea eta koordinatzea.

3. elkarrik ekarpenak egiteko gaitasuna du. Gaur egun Estatuan bake-prozesu baten bidean ekarpen eraikitzaileak egiteko aukera dago. Hau ekarpen positiboa, eraginkorra eta berria izango litzateke orain arte gutxien jorratu dugun eremuan, Estatuko gizarte mailan elkarriren jarduera alegia. Beraz, aukera bat baino erronka bat ere bada. Aukera-erronka honek bake-prozesuaren aldeko Espainiako gizarte esparru bat aktibatzea eskatzen du.

## 2 Elkarriren helburuak Estatuan

### 2.1. Helburu orokorra

Hiritar topagune esparru espainiar baten garapena bultzatu,  
eragin sozial positiboa izateko gaitasuna duena,  
bake-prozesu demokratiko bati laguntza emateko

•**Lagundu:** lehen lekuan elkarrik garatu duen bezalako jarrera erraztai-  
lea eta elkarlanaren aldekoa jartzea esan nahi du. elkarrik protagonismoa  
alde batera utzi eta ekimen hau elkarlan kolektiborako proiektua bezala  
proposatuko du.

•**Espainiar espazioa:** espazio honen jarduera esparrua Estatu osoa da.  
Prozesurako ekarpen estatal bat da. Lehen pertsonan prozesurako ekarpen  
espainiarren berrikuspen bat egitea suposatzen du hain zuzen ere espainiar

«ardura eremu» batetik. Logikoki, espazio hau eukal-nafar/euskal eta nafar erabaki esparruekin koordinatu beharko da.

•**Hiritarren topagune:** «topagune» ideiaaren atzean aniztasunaren eta elkarlanaren ideiak daude. Hiritartasunaren kontzeptuak Estatuan nagusi den «euskal gatazka»ri buruzko ikuspegia zabaldu nahi du. Hau da, gizartearen protagonismoa, eskubideen gauzatzea (gizalegezkoak eta politikoak); elkarbizitza hobetzeko parte-hartze eta gobernu formen definizio demokratiko berria. Eduki hauez gain, hiritartasunaren ideiak prozeduren inguruko proposamen bat darama: prozesu politikoetan hiritarrek protagonismoa har dezatela, gure ordezkari politikoetan eragiteko.

•**Babesa** Euskal Herrian martxan jarri den prozesuari; espainiarrei ere dagokie modu eraikitzailean ekarpenak egitea prozesu honi.

•**Bake-prozesu demokratikoa:** elkarrik dagoeneko garatu duena: bazterketarik gabeko elkarriketa politiko erabakitzailean zehazten da gaur (elkarriketa eta indarkeriarik eza).

## 2.2. Helburu zehatzak

- Estatuan bake-prozesu demokratiko baten (elkarriketa eta indarkeriarik eza) aldeko sentsibilitate maila zorrozki zenbatekoa den jakin.
- Bake-prozesu baterako (1) printzipio, (2) prozedura eta (3) edukien inguruan informatu eta sentsibilizatu.
- Parte-hartzerako eta gizarte presentzia eraginkorrerako bideak aktibatatu.

## 3 jarduera irizpideak


- Erraztu, elkarlanean aritu eta ez baztertu (estatu mailan ahalik eta aniztasun ideologiko handiena bilatzean zehazten da).
- Mezua:
  - BAKEA= indarkeriarik eza bazterketarik gabeko elkarriketarekin harremanetan jartzen duen prozesu demokratikoa.
  - Espainiar ardura eremua: gizarte espainiarrak berak aldarrikatu behar eta beharko lukeen erabaki -ardura- eremu espainiar bat dago. Azken unean, euskal bake-prozesu batek espainiar demokrazian sakontzeko aukera bat ere bada.
- «Ereile» eta dinamizazio sozialeko lana presentzia publiko eraginkorra edukitzeko nahiarekin bateratu.

## 4 ekimenak

Nagusiki Estatuan presentzia aktiboagoa izatea bilatuko dugu gure proposamen eta gogoeten hedapena zabalduz eta, elkarriketaren aldeko espazio espainiar bat dinamizatzeko proiektu zehatz bat garatzeko beste erakunde eta taldeen arteko ezagutza eta koordinazioa bultzatuz.

Hasierako proposamen bezala, «bake-prozesuaren aldeko sarea: indarkeriarik eza eta elkarriketa» sortzea planteatzen da.

Ikerketa-ekintza proiektu baten eta honen aurkezpen publikoaren bidez hiru helburu zehatzak aldi berean gauzatzean datza. Prozesu demokratiko baten aldeko sentsibilitatea duten sektoreak ezagutu eta harremanetan hasten garen aldi berean, sentsibilizazio eta lankidetzaren ildo bati ekingo diogu.



Beste erakunde eta pertsonekin batera, Estatu osoan prozesu demokratiko baten aldeko txosten baten inguruan atxikimendu bilketa bat antolatuko dugu. Ahal den neurrian, beste gaietarako Estatu mailan dauden komunikazio eta/edo koordinazio sareak erabiliko ditugu; eta beharrezkoa denean, sortu egingo ditugu. Sarean egingo da lan, modu koordinatuan lurraldeetako maila desberdinetan dinamizatzailerik egongo duten nodo biderkatzailerik erabiliz.

Elkarrizketaren aldeko «Estatuko errolda» bat osatuko dugu. Ekimenaren eta atxikimenduen aurkezpena (herrietan eta Estatuan) izango da lehen ekimen publikoa.

#### **Faseak**

1. Azterketa: interesatuak dauden sareen, pertsona eta taldeen zerrenda bat egin.
2. Herri eta herrialdeetako biderkatzailerik lortu.
3. Ekimenaren eta atxikimenduen hedapena. Biderkatzailerik bidez eta zuzenean elkarriren eskutik.
4. Estatuan eta herrietan aurkezpen publikoa.
5. Sendotzea: aurkezpen publikoaren ondoren, atxikimendu berrietarako aukera.